

TXINGUDIKO HEGAZTI-FAUNA

AVIFAUNA DE TXINGUDI



TXINGUDI KO HEGAZTI-FAUNA

AVIFAUNA DE TXINGUDI

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LURRALDE ANTOLAMENDU,
ETXEBIZITZA ETA INGURUGIRO SAILA
Ingurugiro Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE ORDENACIÓN DEL
TERRITORIO, VIVIENDA Y MEDIO AMBIENTE
Viceconsejería de Medio Ambiente

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2000

RIOFRÍO AIZPURUA, Josetxo

Txingudiko hegazti-fauna / [ikasketaren zuzendaritza koordinazioa, Ingurugiro Baliabideen Zuzendaritza ; egilea, Josetxo Riofrío Aizpurua] = Avifauna de Txingudi / [dirección y coordinación del estudio, Dirección de Recursos Ambientales ; autor, Josetxo Riofrío Aizpurua]. — 1. argit. = 1.ª ed. — Vitoria-Gasteiz : Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia = Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, 2000 p. ; cm. — (Inguru fisikoa, landaretza eta fauna = Medio físico, flora y fauna ; 51)

ISBN 84-457-1554-2

1. Aves-Txingudi (Bahía). I. Euskadi. Viceconsejería de Medio Ambiente. II. Título. III. Título: Avifauna de Txingudi. IV. Serie 598.2(460.154 Txingudi)

Argitaraldia: Edición:	1.a, 2000ko maiatza 1.ª Mayo 2000
Ale-kopurua: Tirada:	1.000 1.000 ejemplares
©:	Euskal Autonomi Erkidegoko Administrazioa Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Saila Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco Departamento de Ordenación del Territorio, Vivienda y Medio Ambiente
Argitaratzailea: Edita:	Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz
Ikasketaren Zuzendaritza Koordinazioa: Dirección y Coordinación del Estudio:	Ingurugiro Baliabideen Zuzendaritza Dirección de Recursos Ambientales
Egilea: Autor:	Josetxo Riofrío Aizpurua
Fotokonposaketa: Fotocomposición:	Ipar, S. Coop. - Bilbao Particular de Zurbaran, 2-4 - 48007 Bilbao
Inprimaketa: Impresión:	Grafo, S.A. Avda. Cervantes, 51 - 48970 Basauri (Bizkaia)
ISBN:	84-457-1554-2
L.G.: D.L.:	BI - 1.555-00

Aurkezpena
Presentación

Bizkaiko Itsasoko ur gaziek eta Bidasoako ur gezek, Jaizubiako behe lurrek eta Jaizkibel edo Aiako Harriko goi lurrek, Biriatu bezalako herri txikiek eta Irun bezalako hiri handiek bat egiten dute egun Txingudi izenez ezagutzen dugun ingurunea osatuz.

Herri askotako bidaiarien igaroleku izan da gune hau antzina-antzinatik eta Erromatarren garaiko legio eta kulturek beren hondarra utzi zuten Txingudin. Herri indoeuroparren garaiaz geroztik, gaur egun Mendebaldetzat ezagutzen dugunaren jatorria osatzen zuten hainbat eta hainbat herri igaro dira ingurune honetatik. Gerora, gaur egungo Europa ezkontza, gerra eta hitzarmenen bidez itxuratzen ari zen garaian, Historiako gertakari handi horien topagune ere izan genuen Txingudi.

Denboraren hasieratik gizon-emakumeen igaroleku izan da Txingudi, baina baita hegaztiarena ere, izan ere, urteko hainbat sasotian lurralde boreal hotzetan edota Afrikako Tropiko beroan egoten diren hegaztiak harako bidean gure zeru, zingira eta basoak zeharkatzen baitituzte, egutegi biologikoak finkatzen dituen aldien arabera. Duela mende erdiaz geroztik gizartearen bilakaeraren ondorioz, gure lurrian gertatzen diren migrazio-mugimendu interesgarri hauek aztertzei ekin zioten Txingudin. Hegaztien joan-etorriari buruzko azterketak berriki hasiak badira ere, gizon-emakumei buruzkoa aspaldikoa dugu, Erromak berak historialariak bidali baitzituen gurera.

Liburu hau azken urteotan Txingudiko hegaztiei buruzko ikerlanetan bildutako ondorioen laburpena duzue. Denbora luzean zehar eratzunketa izan da gure inguruetan migratzen duten hegaztiak aztertzei bide bakarra. Eta orain dela urte batzuk hegazti negutar urtar zein lurtarren erroldak osatzen hasi ziren. Azterlan hauek agerian utzi zuten Txingudi Euskal Herriko natur gune garrantzitsuenetako bat dugula.

Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sail honek interes handia du eremu horrekiko eta horren erakusgarri duzue egun abian den Txingudi Inguruko Natur Baliabideen Babes eta Antolamendurako Plan Berezia. Plan Berezi hori lantzearekin batera, Txingudiko ingurugiroa, ingurugiroak jasandako ondorioak eta ingurune honetako natur baliabideak ezagutzeko hainbat azterlan burutzeko laguntzak eman dira, hauen artean, eskuarte duzen hegaztiei buruzko lantxo hau.

Aguas salinas del Cantábrico y dulces del Bidasoa; tierras bajas como Jaizubia y altas de Jaizkibel o Peñas de Aya y gentes de comunidades pequeñas como Biriadou o grandes como Irún se combinan para formar lo que hoy conocemos como Txingudi.

Lugar de paso por antonomasia de gentes donde ya Roma, con sus legiones y su cultura, dejó su huella, Txingudi experimentó el tránsito de una sucesión de pueblos indoeuropeos que dieron origen a comunidades llamadas a forjar en su seno lo que entendemos como Occidente. Cuando, con posterioridad, la Europa que hoy conocemos se iba modelando entre guerra y guerra, entre boda y boda, entre pacto y pacto, Txingudi era, de tarde en tarde, el punto donde estos hechos tan importantes pasaban a la Historia.

Este carácter de lugar de tránsito para los hombres que mantiene nuestra zona desde la noche de los tiempos tiene su correlato en el tránsito de aves por sus cielos, aguazales y bosques. Lugar de singular importancia para los trasiegos migratorios de aves radicadas durante ciertas épocas en las frías tierras boreales o en regiones tan cálidas como el trópico africano, según los períodos que marca el calendario biológico, Txingudi propició que estas condiciones naturales sirvieran para que, hace algo menos de medio siglo, la evolución social se concretara con el inicio de la investigación de estos llamativos movimientos de aves en nuestra tierra. El análisis del trasiego de gentes, sin embargo, tiene una tradición milenaria: Roma también trajo a la zona los primeros historiadores.

El presente libro es un compendio de los resultados que se han ido obteniendo a lo largo de los últimos lustros de investigación sobre las aves en Txingudi. Durante muchos años se utilizó el anillamiento como único método de estudio de las aves que migran por nuestra zona. Tiempo después se comenzaron a realizar censos de aves invernantes, tanto acuáticas como terrestres. Estos estudios sirvieron para poner de manifiesto que Txingudi es uno de los espacios naturales de mayor importancia del País Vasco.

El interés de este Departamento de Ordenación del Territorio Vivienda y Medio Ambiente queda reflejado en la elaboración y ejecución de un Plan Especial de Protección y Ordenación de los Recursos Naturales del Área de Txingudi que actualmente se encuentra en marcha. Junto con la elaboración del Plan Especial se ha patrocinado la realización de diversos estudios para el conocimiento del medio ambiente, impactos sufridos y recursos naturales de la zona, entre ellos este trabajo que aquí presento sobre las aves.

Plan Berezi hori abian hasi berria den honetan, Txingudiko espezie, populazio eta hegaztien banaketari buruzko datuek ingurune honek duen balioaz ohartzeko balioko dute batetik, eta bertan burututako babeserako planen emaitzen berri jasotzeko bestetik.

En un momento en que el Plan Especial comienza a andar, los datos sobre especies, poblaciones y distribución de las aves de Txingudi van a contribuir tanto al reconocimiento del valor del espacio como a la evaluación de los resultados de los planes de protección aplicados a la zona.

FRANCISCO JOSÉ ORMAZABAL ZAMAKONA
Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro sailburua
Consejero de Ordenación del Territorio, Vivienda y Medio Ambiente

Eskerronak
Agradecimientos

Honako lan hau azken mende erdian jende askok eta askok egindako eginahal handien emaitza duzue. Urteotan zehar lanean jardun dute hainbat ornitologok Txingudin bizi diren hegaztiei buruzko informazioa biltzeko.

Azterlanok burutzean lagundu dutenen artean inor nabarmentzekotan Aranzadi Zientzi Elkarteko eraztun-jartzailleak aipatu behar ditugu. José Manuel Grandío zingiretako muszikapidoei buruzko azterlanen arduraduna dugu eta José Antonio Belzunce hegazti negutarrei buruzko ikerlanetarako datuak biltzen lagundu zuen.

Guztioi eskerrik asko.

La presente obra es el resultado del esfuerzo realizado por decenas personas a lo largo de medio siglo. Durante estos años ornitólogos con mayor o menor dedicación se han ocupado de trabajar para obtener información de las aves que habitan en Txingudi.

Especialmente han contribuido a este estudio los sucesivos equipos de anilladores de la Sociedad de Ciencias Aranzadi. José Manuel Grandío es el responsable de los estudios sobre muscicápidos palustres. José Antonio Belzunce colaboró en la toma de datos del estudio de aves invernantes.

A todos ellos muchas gracias.

Aurkibidea
Índice

AURKIBIDEA

SARRERA	19
1. TXINGUDIKO BADIA	23
1.1. Kokagunea eta sarbideak	25
1.2. Ingurune fisikoa	25
1.3. Ingurune biotikoa	27
1.4. Giza ingurunea	32
2. TXINGUDIK HEGAZTI-FAUNAREN BABESERAKO DUEN GARRANTZIA	35
2.1. Txingudi, migrazioaren ohiko igaroleku	37
2.2. Txingudiko biotopoek hegazti-populazioen babeserako duten garrantzia	39
2.3. Txingudiko hegazti-faunarekiko interesa	42
3. TXINGUDIKO HEGAZTIEI BURUZKO IKERLANAK	45
3.1. Laburpen historikoa	47
3.2. Metodologia	49
3.2.1. Behaketak	50
3.2.2. Erroldak	50
3.2.3. Hegazti lurtarren erroldak	50
3.2.4. Hegazti urtar negutarren erroldak	51
3.2.5. Eratzunketak	52
3.2.6. Hegaztiak harrapatzeko metodoak	55
4. TXINGUDIKO HEGAZTI-POPULAZIOAK	57
4.1. Populazio migratzaileak	59
4.1.1. Txinboak (<i>Sylvia</i> generoa)	59
Sasi-txinboa (<i>Sylvia communis</i>)	61
Baso-txinboa (<i>Sylvia borin</i>)	62
Txinbo kaskabeltza (<i>Sylvia atricapilla</i>)	65
4.1.2. Lezkariak (<i>Acrocephalus</i> generoa)	67
Lezkari arrunta (<i>Acrocephalus scirpaceus</i>)	68
Benarriz arrunta (<i>Acrocephalus schoenobaenus</i>)	71
4.1.3. Paparrurdina eta urretxindorra	74
Paparrurdina (<i>Luscinia svecica</i>)	74
Urretxindorra (<i>Luscinia megarhynchos</i>)	77
4.1.4. Fringilidoak	78
Txirriskil arrunta (<i>Serinus serinus</i>)	79
Txonta arrunta (<i>Fringilla coelebs</i>)	81
Karnaba (<i>Carduelis carduelis</i>)	82
Txoka arrunta (<i>Carduelis cannabina</i>)	85
Tarina (<i>Carduelis spinus</i>)	87
4.2. Txingudiko hegazti negutarrak	89
4.2.1. Dentsitatea	90

ÍNDICE

INTRODUCCIÓN	19
1. LA BAHÍA DE TXINGUDI	23
1.1. Situación y accesos	25
1.2. El medio físico	25
1.3. El medio biótico	27
1.4. El medio humano	32
2. LA IMPORTANCIA DE TXINGUDI EN LA CONSERVACIÓN DE LAS POBLACIONES DE AVIFAUNA	35
2.1. Txingudi como lugar tradicional en la migración	37
2.2. Los biotopos de Txingudi en la conservación de las poblaciones orníticas	39
2.3. Interés de las poblaciones de avifauna de Txingudi	42
3. INVESTIGACIONES SOBRE AVES EN TXINGUDI	45
3.1. Síntesis histórica	47
3.2. Metodología	49
3.2.1. Observaciones	50
3.2.2. Censos	50
3.2.3. Los censos de aves terrestres	50
3.2.4. Los censos de aves acuáticas invernantes	51
3.2.5. Anillamientos	52
3.2.6. Métodos de captura	55
4. POBLACIONES DE AVES DE TXINGUDI	57
4.1. Poblaciones de carácter migratorio	59
4.1.1. Currucas (género <i>Sylvia</i>)	59
Curruca zarcera (<i>Sylvia communis</i>)	61
Curruca mosquitera (<i>Sylvia borin</i>)	62
Curruca capirotada (<i>Sylvia atricapilla</i>)	65
4.1.2. Carriceros (género <i>Acrocephalus</i>)	67
Carricero común (<i>Acrocephalus scirpaceus</i>)	68
Carricero común (<i>Acrocephalus schoenobaenus</i>)	71
4.1.3. Pechiazul y Ruiseñor	74
Pechiazul (<i>Luscinia svecica</i>)	74
Ruiseñor común (<i>Luscinia megarhynchos</i>)	77
4.1.4. Fringílicos	78
Verdecillo (<i>Serinus serinus</i>)	79
Pinzón vulgar (<i>Fringilla coelebs</i>)	81
Jilguero (<i>Carduelis carduelis</i>)	82
Pardillo común (<i>Carduelis cannabina</i>)	85
Lúgano (<i>Carduelis spinus</i>)	87
4.2. Aves invernantes en Txingudi	89
4.2.1. Densidad	90

4.2.2. Aberastasuna	91
4.2.3. Aniztasuna	92
4.2.4. Ekitabilitatea	92
4.2.5. Nagusitasun-indizea	94
4.2.6. Berariazko ordezkapen-maila	94
4.2.7. Aiako Harria	95
4.2.8. Ondorioak	95
Hegazti negutarren taulak	96
4.3. Negua Txingudin ematen duten hegazti urtarrei buruzko 1990eko eta 1994-1998 bitarteko errolden emaitzak	103
I. ERANSKINA. TXINGUDIKO HEGAZTI-FAUNARI BURUZKO LABURPENA	107
OINARRIZKO BIBLIOGRAFIA	115

4.2.2. Riqueza	91
4.2.3. Diversidad	92
4.2.4. Equitabilidad	92
4.2.5. Índice de dominancia	94
4.2.6. Grado de reemplazamiento específico	94
4.2.7. Peñas de Aya	95
4.2.8. Conclusión	95
Tablas de aves invernantes	96
4.3. Resumen de los resultados de los censos de aves acuáticas invernantes en Txingudi de 1990 y del período 1994-1998	103
ANEJO 1. PRONTUARIO DE LA AVIFAUNA DE TXINGUDI	107
BIBLIOGRAFÍA BÁSICA	115

Sarrera

Introducción

Bidasoa ibaiak Mendien artean urratzen duen espazioaren azken tarteak osatzen du gaur egun Txingudi izenez ezagutzen dugun ingurunea. Ibaia itsasoratzen deneko paduran kalitate handiko hainbat gune sortzea ahalbidetu duten fenomeno geologiko eta biologikoak uzartzen dira altxor preziatu honetan.

Leku honetan bizitoki egokia aurkitu du hegazti-fauna, nahiz eta xx. mendean zehar Txingudiko harreman naturalek korapilatzen hasi ziren. Ingurune urbanizatuak natur guneen kaltetan hazi dira, baina azken urteotan ingurune hau guztia ahalbait gehien leheneratzeko saioak burutzen ari dira.

Dakigunez, gure herrian ez dugu tradizio handirik ikerkuntza-arloan, eta hala, bukatzeaz dagoen mende honetako bigarren erdira arte ez dago Txingudiko burutzen diren natur fenomenoen gaineko informazio zehatz askorik. Orduz gero bildutako datu gehienak botanikari eta fauna orodunari buruzkoak dira, eta hegazti-fauna, Txingudiko ondare handiena osatzen duena, gehien ikertu den animalia-taldea dugu. Hala eta guztiz ere, hasi besterik ez dira egin talde honi buruzko ikerketak.

Mende honetako berrogeita hamargarren hamarkadan hegaztiak eraztuntzeko talde egonkorra sortu zen, eta hurreneko izan zen Txingudiko hegazti-faunari buruzko ikerkuntza-alorreko gertakari garrantzitsuena. Litekeena da orduan konturatu ere ez egitea, baina denborak aurrera egin ahala, Txingudiren bereizgarrietako bat izango zenaren oinarriak finkatu zituzten aitzindari haiek, hegazti-faunari buruzko ikerkuntzaren tradizioari beraiek ekin baitzioten.

Haiek hasitako lanari heldu dioten belaunaldiak orduko lan-metodologiak eskaintzen zituen aplikazioak zabaldu egin dituzte eskueran izan dituzten bitarteko urriak ahalbidetzen zien neurrian, eta gaur egun gure herri honetan parekorik ez duen mailara eramane zuten hegazti-popolazioei buruzko ikerkuntza.

Oraindik asko dago ikertzeko Txingudiko hegazti-komunitateei buruz, baina azken hamarkadatan zehar hainbat gizon-emakumek egindako lanari esker, gure hegazti-eraztuntzei buruzko alderdi ugari ezagutzeko aukera dugu gaur egun. Liburu honetan Txingudiko natur ondare handienari buruzko, hau da, hegazti-faunari buruzko, ikerkuntzak laburbildu nahi izan ditugu.

Txingudiko hegazti-eraztuntzei buruzko datu berriak ezagutu ahala, areagotu egin da berauek babestearen aldeko kezka. Baina urte luzeetan zehar, erabakiak hartzeko ardua zutenek ez dute kezka honekin bat zetorren babes-

El espacio que entre montañas se abre el río Bidasoa en su último tramo es lo que en la actualidad conocemos como Txingudi. La marisma que da término al río es la joya de un territorio donde la combinación de fenómenos geológicos y biológicos ha propiciado la existencia de varios espacios naturales de calidad.

En este lugar la avifauna siempre ha encontrado espacios adecuados para vivir aunque el siglo xx en su conjunto es un tiempo donde las relaciones naturales se ha vuelto más complicadas en Txingudi. El crecimiento de las zonas urbanizadas se ha realizado a costa de la pérdida de importantes espacios naturales que, tímidamente, en los últimos años, se tratan de recuperar en la medida de lo posible.

A la escasa tradición investigadora de nuestra tierra se debe que hasta la segunda mitad del siglo que ya termina no contáramos con información de cierta precisión sobre los fenómenos naturales que se desarrollan en Txingudi. Los datos disponibles desde entonces se centran en estudios botánicos y de fauna vertebrada. La avifauna, uno de los patrimonios mayores de Txingudi, ha sido el grupo animal mejor estudiado. No obstante, su estudio no ha hecho más que empezar.

La formación de un grupo estable de anilladores durante los años cincuenta de nuestro siglo ha sido, históricamente, el hecho más relevante para el estudio de la avifauna de Txingudi. Aunque es probable que nunca llegaran a saberlo, sentaron las bases de lo que al correr el tiempo se ha convertido en otra de las características fundamentales de Txingudi. Crearon la tradición en la investigación sobre avifauna.

Las generaciones que han continuado la labor iniciada por estos pioneros han sabido diversificar, en la medida de los escasos recursos disponibles, las aplicaciones de esta metodología de trabajo en Txingudi hasta cotas que no admiten comparación con lo que ha acontecido en otros lugares de nuestra tierra con poblaciones de aves de cierta importancia.

Todavía queda mucho por estudiar en las comunidades orníticas de Txingudi pero los esfuerzos realizados por diversas personas a lo largo de varias décadas han posibilitado conocer varios aspectos sobre nuestras aves. El contenido de este libro pretende sintetizar este esfuerzo investigador sobre el mayor patrimonio natural de Txingudi: la avifauna.

A medida que se conocían nuevos datos de las aves en Txingudi, el interés por su protección iba en aumento. Durante demasiados años este interés por el bien común no se plasmó en actuaciones protectoras por parte de los respon-

jarduketarik burutu eta hegaztientzat zein gizakiontzat oso kaltegarriak izan diren hainbat eta hainbat ekintza burutu dira, jasagarria denaren mugaren gainetik. Azken boladan antzematen diren jarrerak ikusita, badirudi aurrerantzean jokabide horiek aldatzeko aukera badagoela. Ez dakigu zenbatekoa izango den jokamolde horiek errotoik aldatu arte ibili beharreko bidea, baina pixkana-pixkana nagusitzen ari dira babesaren aldeko jarrerak.

Txingudi babestu beharra aipatzen zuen lehenbiziko txostena 1983koa dugu: Eusko Jaurlaritzako Lurralde Politika eta Garraio Sailaren eskariz Aranzadi Zientzi Elkarteak egindako «Txingudiko Ingurune Fisikoari buruzko Azterketa» hain zuzen ere. 80. hamarkadaren erdialdean fauna babestea ahalbidetzen zuten bi erabaki hartu ziren: padura-inguruan ehizan egitea debekatu egin zuen Gipuzkoako Foru Aldundiak, Aranzadi Zientzi Elkartearen eskariari erantzunez (nahiz eta neurri honek berez urte luzeetan zehar emaitza handirik izango ez zuen), eta bestalde, badiaren barrualdetik lur idorrak erauzteari utzi zitzaion.

Ingurune honek ekologia aldetik duen garrantzi handia agerian utzi du Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Arauetan jasotako Natura Aldetik Interesa duten Guneen Zerrenda irekian Txingudi sartu izanak. Era berean, Nazioarteko Garrantzia duten Hezeguneei buruzko RAMSAR katalogoan ere jaso zen, eta Natura 2000 Europako Sareko Kontsebazio Bereziko Eremuen sailean sartzeko proposamena dago halaber.

Gaur egun Txingudiko hainbat eremu Eusko Jaurlaritzako Ingurugiro Sailordetzak prestatutako «Txingudi Inguruko Natur Baliabideen Babes eta Antolamendurako Plan Berezia» delakoan jasotzen dira. Plan honen bidez eremu hauetako paisajea, fauna eta landaredia babestu nahi dira, ohiko erabilpenekin eta ingurugiro-hezkuntzarekin bat datorren moduan egin ere. Planak hainbat sailetan banatzen du ingurune hau: babes integraleko eremuen, babes bereziko eremuen, babes arrunteko eremuen eta nekazaritza-babeseko eremuen artean, eta uztartu egiten du eremu jakin batzuen balioaren leheneratzea batetik, eta beste eremu batzuetan errotoak dauden erabilera bateragarrien iraupena bestetik. 1998ko uztaillean Plaiaundiko Ekologia Parkea zabaldu zen, eta honela hainbat hamarkadatan zehar erruz kaltetutako padurako eremu bat berreskuratu da Irunen. Nolanahi ere, Plan honetako zenbait neurri ez dira oraindik gauzatu eta, bestalde, denbora igarotzea ezinbestekoa da emaitzak ebaluatu ahal izateko.

sables en la toma de decisiones. Hechos nefastos para las aves —y para la comunidad humana— se han sucedido más allá de lo tolerable. En los últimos tiempos parece que hay síntomas de que estas absurdas actitudes pueden variarse. No sabemos el recorrido que llegarán a tener estos cambios de actitud pero, a medida que transcurre el tiempo, se evidencia la certeza de las posturas proteccionistas.

El primer informe que avala la necesidad de protección de Txingudi data del año 1983 y es el «Estudio del Medio Físico de Txingudi» realizado por la Sociedad de Ciencias Aranzadi por encargo del Departamento de Política Territorial y Transportes del Gobierno Vasco. A mediados de los años 80 tienen lugar dos decisiones que favorecen la protección de la fauna: la prohibición de la caza en la zona marismesa (decisión con escasos resultados prácticos durante bastantes años) por parte de la Diputación Foral de Gipuzkoa a petición de la Sociedad de Ciencias Aranzadi y el cese de la extracción de áridos en el interior de la bahía.

La importancia ecológica del área se ha puesto de relieve mediante su inclusión en el Listado abierto de espacios de interés naturalístico de las Directrices de Ordenación del Territorio de la Comunidad Autónoma del País Vasco. Asimismo, se incluyó provisionalmente en el catálogo RAMSAR, de Humedales de Importancia Internacional y se ha propuesto su inclusión en la Red Europea Natura-2000 como zona de especial conservación.

Actualmente varias zonas del área de Txingudi se encuentran incluidas en el «Plan Especial de Protección y Ordenación de los Recursos Naturales del área de Txingudi» elaborado por la Viceconsejería de Medio Ambiente del Gobierno Vasco. Mediante este Plan se pretende proteger el paisaje, fauna, flora y vegetación de la zona de forma compatible con el mantenimiento de los usos tradicionales y la educación ambiental. El Plan zonifica el área en espacios de protección integral, especial, común y agraria, combinando la recuperación de los valores en ciertas zonas con el mantenimiento de usos compatibles consolidados en otras. Recientemente, en julio de 1998, se inauguró el Parque Ecológico de Playaundi, recuperándose de esta forma un área marismesa altamente degradada durante varias décadas en el municipio de Irún. Sin embargo, quedan aún medidas del Plan por aplicar y, por otro lado, es necesario el paso del tiempo para evaluar los resultados.

1. Txingudiko badia

1. La bahía de Txingudi

1.1. Kokagunea eta sarbideak

Txingudiko ingurune geografikoa Gipuzkoako ipar-mendebaldeko muturraren eta Pirinio Atlantiarrek departamenduko hegoekialdeko muturraren artean kokatuta dago, Bidasoa ibaiaren behe tartearen inguruan, eta bi herrialderen arteko muga osatzen du. Ingurune hau hiru herri osatzen dute: Hondarribia eta Irun Bidasoaren ezker ibarrean eta Hendaia eskuin ibarrean. Kartografiari dagokionez, Iruni dagozkion $43^{\circ} 20' N$ $01^{\circ} 47' W$ koordenatuek mugatzen dute Txingudi.

Ingurune honetara hurbiltzeko hainbat sarbide ditugu aukeran. N1 errepideak Hondarribia eta Irungo udalbarriak zeharkatzen ditu eta azken herri honetan amaitzen da. Hauxe dugu Gipuzkoako gainerako herrietatik datozenek erabili ohi duten bidea. N1 errepidearekiko paralelo doan A8 autobidetik ere honaino heldu gaitzke orain dela gutxi geroztik. Iruñetik datorren N-121A errepidea Irungo Behobia auzoan amaitzen da Endarlatzako haizpitartearen zehar Txingudin barneratu ostean.

Txingudi eta inguruko herriak lotzen dituzten hainbat eskualdeko errepide erabil ditzakegu halaber. GI-3440 errepideak Hondarribia eta Lezo uztartzen ditu Jaizkibel mendia zehar. GI-2134 errepideak Oiartzun eta Irun lotzen ditu Irungo Landetxa auzoan barrera eta GI-3631 errepidea GI-2134 errepide horretatik abiatzen da Oiartzungo Gurutze auzoaren parean, eta Irungo hiriguneraino heltzen da herri honetako landa-ingurunea zeharkatu ondoren, Aiako Harriak kotarik altuena duen hegaletik datorrela.

Frantziako lurretatik etorrira ere hainbat sarbide dauke: N 10 errepidetik, A 63 autobidetik edota Donibane-Lohizune eta Hendaia lotzen dituen D 912 eskualde-errepidetik iritsi gaitzke Txingudiraino.

Bidasoaren bi ibaiertzetatik trenbidea igarotzen da. Trenbide nagusia Madril-Paris lotzen dituen dugu, eta Irunen eta Hendaian geltoki bana ditu. Beste aukera bat Hendaia eta Donostia lotzen dituen burdinbidea dugu, Bidasoa ibaiaren eskuineko ertzean barneratzen dena.

Paduraren erdian Donostiako Aireportua aurkitzen dugu Hondarribiko udalbarrutian. Aireportu honek Madril eta Bartzelonarako linea erregularrak eskaintzen ditu.

1.2. Ingurune fisikoa

Txingudi inguratzen duen orografiak zonalde honetako muga geografiko naturalak zedarrizten ditu. Iparraldean

1.1. Situación y accesos

El área geográfica de Txingudi —confín de dos naciones— queda situada entre el extremo nororiental de la provincia de Gipuzkoa y el extremo suroriental del departamento de los Pirineos Atlánticos dando cabida al tramo bajo del río Bidasoa. Las tres localidades que se asientan en la zona son Hondarribia e Irún en la orilla izquierda del Bidasoa y Hendaya en la orilla derecha. Cartográficamente la zona queda centrada en las coordenadas $43^{\circ} 20' N$ $01^{\circ} 47' W$ correspondientes a la localidad de Irún.

El acceso a la zona puede realizarse de diversas maneras. La carretera N-1 discurre por los términos municipales de Hondarribia e Irún, donde finaliza, y es el acceso tradicional desde el resto del territorio guipuzcoano. Más modernamente, el acceso por carretera puede también realizarse por la autopista A-8 que discurre de modo paralelo a la carretera N-1. La carretera N-121A finaliza su recorrido desde Pamplona en el irunés barrio de Behobia tras penetrar en Txingudi por el desfiladero de Endarlaza.

Diversas carreteras comarcales comunican el territorio con las localidades colindantes. La GI-3440 une Hondarribia con Lezo a través de la dorsal del monte Jaizkibel. La GI-2134 une Oiartzun con Irún a través del irundarra barrio de Ventas y la GI-3631 parte de la anteriormente citada GI-2134 a la altura del oyarzuarra barrio de Gurutze alcanzando el casco urbano de Irún tras discurrir por la zona rural de esta localidad llegando a transitar por las faldas del macizo de Peñas de Aya en la zona de mayor cota.


Desde territorio francés el acceso puede llevarse a cabo por la carretera N 10, por la autopista A 63 o por la carretera comarcal D 912 que une St. Jean-de-Luz con Hendaya.

Por ambas orillas del Bidasoa discurren vías férreas. La principal es la Madrid-París con estaciones terminales en Irún y Hendaya. De recorrido comarcal es la línea férrea Hendaya-San Sebastián que apenas se adentra en la orilla derecha del Bidasoa.

Enclavado en plena marisma queda situado en Hondarribia el aeropuerto de San Sebastián con líneas regulares de carácter nacional a Madrid y Barcelona.

1.2. El medio físico

La orografía que circunda Txingudi crea los límites geográficos naturales de esta zona. Por el norte la desemboca-



1. irudia. Txingudiko mapa.

Figura 1. Mapa de Txingudi.

Bidasoa ibaia itsasoratzen deneko bokaleak Bizkaiko Golkoaren erpina osatzen du. Aiako Harriak (834 m) eta eki eta mendebaldeko mendi-adarrek itxi egiten dute arroa hegoaldeko. Bizkaiko itsasbazerrean sortzen den Jaizkibel mendi luzeak (540 m) mendebaldetik mugatzen du arroa. Bidasoako eskuineko ibaiertzean, Frantziako lurretan, Santa Ana lumuturreko (Hendaiako udalbarria) labarretan jaiotzen den muinoak Bidasoa Beherea ixten du ekialdetik eta itsasbazerretik urrundu ahala Lapurdin barneratzen da Txoldokogainarekin bat egin arte. Horixe dugu Txingudiko ekialdeko mugako kotarik altuena. Enderlartzak Txoldokogainaren eta Aiako Harriaren arteko etenunea osatzen du, eta haizpitarte mehar honetan barrena egiten ditu Bidasoa ibaiak Nafarroako lurretik datorrela itsasoratu aurreko azken tartea.

Ingurune honetako geologia jatorri desberdinetakoa dugu. Lur zaharrenak hegoaldekoak dira, Aiako Harria izeneko granitozko mazizo handia eta Irungo mendialdeko erdialdeko eskistoak alegia, biak ere aro paleozoikoak. Jaizkibel izeneko hareharrizko mazizoa aro mesozoikoa da eta Hondarribia eta Irunek osatzen duten haranaren barrualdea aro zenozoikoa. Bidasoa ibaiak eta Jaizubia errekaak osatu duten alubiala eta itsasoak ekarritako hondarrak ditugu Txingudiko materialik berrienak, aro koaternariokoak hain zuzen ere.

Txingudiko arro txikia bi ibaibidek drenatzen dute: Bidasoa ibaiak eta Jaizubia errekaak. Azken ubide honen ingurune honetako mendebaldeko drenatzen du: Jaizkibelgo ekialdeko hegala eta Aiako Harriko mendebaldeko hegala alegia. Bidasoa ibaiak Endara erreka toaren urak biltzen ditu ezker ibarrean, Txingudin sartzen deneko gunean —Enderlartzan—, eta Jaizubia erreka toarekin bat egin arteko bidean ingurune honetako sortaldeko euriak biltzen dituzten hainbat erreka toren urak hartzen ditu, ibaiaren bazter bietara.

1.3. Ingurune biotikoa

Denboraren joanaren ondorioz batetik, eta gizakiek Txingudiko lurretan mendeetan zehar utzitako aztarnen ondorioz bestetik, lurrotan zazpi biotopo bereizten dira:

- Landazabala
- Otalurra eta larre menditarra
- Konifero-basoak
- Ubideak
- Harkaiztia
- Baso hostoerorkorra
- Padura

Lehenbiziko hiru biotopoek gizakiek ingurunean izandako eraginaren ondorioz ditugu. Bai landazabala bai otalurrak gizakiek jatorrizko baso hostoerorkorrean mendeetan zehar burututako jardueren ondorioz sortutako biotopoak dira, denboran zehar egindako enbor-mozketen ondorioz, egungo eitea hartu baitute.

Landazabala Irún eta Hondarribiko hiriguneen ondoko lur-zerrendan kokatzen da nagusiki, nekazaritzarako baldintza egokiak dituzten haranen hondoan. Inguruotako bereizgarri nagusia gizakiek sortua da: baserria hain zuzen ere. Baserrien inguruan bazter hauetako paisaia itxuratu duen giza jarduera iraunkorra burutzen da nekazari-

dura del río Bidasoa marca el vértice del Golfo de Vizcaya. El macizo de Peñas de Aya (834 m) y sus estribaciones hacia el este y hacia el oeste cierran la cuenca por el sur. La prolongada silueta del monte Jaizkibel (540 m), que surge de la orilla del Cantábrico, limita la cuenca por su lado occidental. En la orilla derecha del río Bidasoa, en territorio francés, la colina que tiene su origen en los acantilados de la punta de Santa Ana (término municipal de Hendaya) cierra el bajo Bidasoa por el lado este al ir ganando altura a medida que se aleja de la línea costera adentrándose hacia el interior del territorio hasta alcanzar en el macizo de Txoldokogaina la mayor cota del límite este de Txingudi. Enderlaza es la discontinuidad entre el macizo de Txoldokogaina y el de Peñas de Aya siendo este desfiladero la angostura por donde el Bidasoa accede desde tierras navarras a su último tramo: el internacional y marismeno.

La naturaleza geológica de la zona tiene diverso origen. Los materiales más antiguos quedan situados en la zona sur del territorio, en el macizo granítico de Peñas de Aya y en los esquistos de la zona intermedia de la montaña irunesa, ambos de origen paleozoico. El macizo arenoso de Jaizkibel tiene origen mesozoico y los fondos de valle de Hondarribia e Irún provienen de la era cenozoica. El aluvial que han formado el río Bidasoa y la regata de Jaizubia junto con los aportes del mar son los materiales más recientes, de origen cuaternario.

La pequeña cuenca de Txingudi está drenada por dos cursos fluviales: el río Bidasoa y la regata de Jaizubia. Este último curso fluvial drena la parte occidental del territorio (ladera este del monte Jaizkibel y ladera oeste del macizo de Peñas de Aya). El Bidasoa recibe por su margen izquierda en el punto de entrada en Txingudi —Enderlaza— los aportes de la regata de Endara y hasta su encuentro con la regata de Jaizubia llegan a él numerosas regatas en una y otra orilla que descargan las precipitaciones de la parte oriental del territorio.

1.3. El medio biótico

El devenir de los tiempos y la acción secular del hombre sobre el territorio de Txingudi ha dado lugar a que se diferencien siete biotopos en este territorio:

- Campaña
- Landa y pastizal montano
- Plantaciones de coníferas
- Regatas
- Roquedo
- Bosque caducifolio
- Marisma

Los tres primeros biotopos relacionados tienen como origen la acción del hombre sobre el medio natural. Tanto la campiña como las landas son biotopos generados por la secular actividad humana sobre el primigenio bosque caducifolio que, tras ser talado repetidas veces, su espacio ha resultado con estos dos tipos de configuraciones actuales.

La campiña se asienta mayoritariamente en una franja territorial inmediatamente contigua a los núcleos urbanos de Irún y Hondarribia sobre los fondos de valles con condiciones adecuadas para su utilización agrícola. Su elemento aglutinador, de factura humana, es el caserío. En torno a él se realiza una actividad económica permanente que ha con-

Txingudiko biotopoak

1. argazkia. Otalurra (Olaberria-Irun)

Foto 1. Landa.

Jose txo Riofrío



Jose txo Riofrío



Jose txo Riofrío



2. argazkia. Harkaiztia (Peñas de Aya)
Foto 2. Roquedo

Jose txo Riofrío



3. argazkia. Padura (Txingudi)
Foto 3. Marisma

6. argazkia.
Foto 6. Plant

Los biotopos de Txingudi


4. argazkia. Hiri-ingurunea (Irún)
Foto 4. Medio urbano



5. argazkia. Landazabala (Meaka)
Foto 5. Campiña



Joseetxo Rialfrio



Joseetxo Rialfrio

7. argazkia. Baso hostoerorkorra (Endara)
Foto 7. Bosque caducifolio

nífero-basoak (Higer)
ón de coníferas

tza eta abeltzaintza intentsiborako erabilitako esparru za-
baletan. Belardi eta baratzeen aldean, erreka eta lur-
eremu malkartsuetan kokatutako basotxoak ditugu, ne-
kazaritzarako erabili ezinekoak.

Otalur eta larre menditarrak etengabeko giza ekintza-
ren bidez sortuak dira, landazabala bezala, baina azken
honengandik bereizten dituzten hainbat ezaugarri dituz-
te. Oro har, hirigunetik aldentutako eta landazabalak bai-
no kota eta batez besteko malda handiagoko eremuetan
kokatzen dira. Litekeena da horren ondorioa izatea lur
hauek landazabalak bezainbeste ez landu izana. Giza
jardueraren eragin txikiagoa izanik, flora-aniztasun han-
diagoa dute eta hauen artean iratze arrunta, hainbat mo-
tatako txilarrak eta ote zuria nabarmentzen dira.

Txingudiko koniferoak mende hasieran burututako lan-
daketa artifizialak egiteko politikaren ondorio ditugu. Giza
jarduerak jatorrizko baso hostoerorkorren gainean
izandako eraginaren ondorioz sortutako otalur eta landa-
zabalak zeuden lurretan landatu izan dira zuhaitzok. Ja-
torrizko baso horiek murriztu egin dira pixkanaka bi arra-
zoiengatik. Lehenik eta behin, landaketa artifizial hauek
heldutasun-maila egokira heltzean ordezkatzeko direneko
azken txanda heldu zaielako. Lurzati hauetako batzuetan
koniferoen ordezkari aloktonoko hostozabalak landatu
dira. Bigarren arrazoa suaren eragin suntsitzailea dugu,
Jaizkibel mendiaren hegal bietan ondorio latzak eragin
baititu.

Txingudiren ezaugarri geologikoak direla eta, inguru
honetan botatzen dituen euri-jasa handiak lur gaineko
sare hidrikoaren bidez hustutzen dira. Bidasoa ibaia
izan ezik, gainerako ibaibideek ez daramate ur askorik,
izan ere drenatzen dituzten arroak ere estu samarrak izan
dira. Biotopo honek gainazaleko eremu txiki bat bes-
terik hartzen ez badu ere —harikara dena ia ibilbide osoan
zehar—, bere egituraren ezaugarri nagusia ibaion ertze-
tako hainbat espezieetako zuhaitz eta zuhaiskez osatuta-
ko basoa dugu. Haltza da ibaiertzeko baso honetako es-
pezie bereizgarriena, erreka hauetatik kanpo gutxitan
aurkitzen baita, ura bizitzeko ezinbestekoa zaiola eta.

Aipatzekoak dira halaber Txingudiren mendebal eta
hegoaldean ageri diren harkaiztiak. Hauen artean, lur-
eremu honen hegoaldean altxatzen den Aiako Harria na-
barmetzen da, harkaizti guztien arteko handiena baita.
Harriztar trinko honekin batera, Jaizkibelgo sartaldeko
isurialdean hainbat malkar arrokatsu ageri dira. Eta Jaiz-
kibelgo mendebaldeko isurialdea drenatu eta zuzenean
itsasora isurtzen duten errekaen albo bietara goitik
beherako plano hondartsua osatzen duten malkar hauek
elkarrekiko paralelo doan multzo etena osatzen dute.

Txingudin baso-hedadurak hazteko egokia zen lur-ere-
mu ia guztia estaltzen zuen jatorrizko basoa era askotako
hariztiez osatzen zen, gehienak ere, haritz kandudunak.
Pagadiak Aiako Harriko aldapa gutxieneko inguruetan
ageri ziren nagusiki. Baina denboraren joan-etorriak na-
barmen aldatu du jatorrizko banaketa hau eta gaur egun
Endara sakanako hariztia eta Enbido ur-jauziaren inguru-

figurado un paisaje caracterizado por amplios espacios
abiertos dedicados a la actividad agrícola y ganadera inten-
siva. Las praderas y huertas tienen como principal elemento
de contrapunto paisajístico los pequeños bosquetes asenta-
dos en las regatas y porciones de terreno de elevada pen-
diente, de escasa aptitud para uso agrícola.

Las landas y pastizales montanos aunque proceden,
como la campiña, de la transformación producida por la ac-
ción humana permanente, poseen unas características que
las diferencian de ésta. Espacialmente quedan situadas,
por lo común, en zonas de mayor cota —alejadas de la
zona urbana— y con pendiente media más elevada que los
territorios de la campiña. Posiblemente ésta sea la razón
por la que no han sido cultivados con el mismo grado de in-
tensidad que la campiña. Debido a la menor incidencia hu-
mana poseen una diversidad florística mayor y suelen estar
dominadas por especies como el helecho común, varios tí-
pos de brezo y argoma.

Las coníferas presentes en Txingudi son producto de la
política de plantaciones artificiales iniciada a principios de si-
glo. Tradicionalmente han venido a ocupar terrenos previa-
mente reducidos a landas y pastizales por una acción ante-
rior del hombre sobre el originario bosque caducifolio. Estas
formaciones forestales han visto reducida su presencia en
Txingudi en los últimos años por dos causas. La primera de
ellas es el fin de turno por el que estas plantaciones artifica-
les son reemplazadas cuando llegan a su grado de madurez
idóneo. En algunas de estas parcelas la nueva plantación ha
sido realizada con frondosas de origen alóctono en lugar de
coníferas. La segunda causa es la acción devastadora del
fuego, principalmente en ambas laderas del monte Jaizkibel.

Las características geológicas de Txingudi hacen que la
evacuación de las importantes precipitaciones que recibe la
zona se realicen mayoritariamente por la red hídrica superfi-
cial. A excepción del río Bidasoa, el resto de los cursos flu-
viales son de escaso aforo, en consonancia con la reducida
dimensión de la cuenca que drenan. A pesar de la pequeña
dimensión superficial que ocupa este biotopo —práctica-
mente de forma filiforme en todos los casos— tiene como
característica estructural más notable el «bosque» de ribera
que forman diversas especies arbóreas y arbustivas que se
asientan en las orillas de los mismos. El aliso es la especie
que lo caracteriza siendo poco frecuente encontrarla fuera
de estos arroyos debido a la necesidad que para su de-
sarrollo vital precisa del agua.

De notable presencia son los roquedos que se asientan
en el occidente y sur de Txingudi. El macizo granítico de Pe-
ñas de Aya, en el sur del territorio, es el de mayores dimen-
siones. Junto a esta masa compacta la zona posee escar-
pes rocosos en la vertiente occidental de Jaizkibel. En este
caso forman un conjunto discontinuo y paralelo entre sí ya
que se establecen estos planos verticales areniscosos en
ambas orillas de las regatas que drenan la vertiente oeste
de Jaizkibel directamente al mar.

El primigenio bosque que cubría la práctica totalidad del
terreno apto para el desarrollo de masas forestales bosco-
sas en Txingudi eran robledales de diverso tipo con presen-
cia mayoritaria del roble pedunculado. El hayedo era el bos-
que predominante en los planos con pendiente menos
pronunciada del macizo de Peñas de Aya. Esta situación ha
sido alterada muy notablemente con el devenir histórico. En



8. argazkia. Trenbideko instalazioak.

Foto 8. Instalaciones ferroviarias.

ko zuhaiztiak ditugu baso hostoerokorrez osatutako hedadura aipagarri bakarrak. Haritz kandudunei zegokien lur-eremua zuhaitz-mozketen eraginez pixkana-pixkana murriztu egin bada ere, oraindik ere badu garrantzirik, Lesaka eta Irungo udalbarrutiek elkarrekin banatzen duten haranean zein Enbido ur-jauziaren inguruko lurretan ageri den flora belarkara eta zuhaiska-erakoarekin batera. Txingudiren hegoaldeko sakana hauetatik kanpo, landazabalen bazterreko ertzetan sakabanatutako harizti txiki gutxi batzuetara mugatzen dira hostozabalen basoak.

Txingudi izena, Bidasoa ibaiak Higer senaian osatzen duen badiari dagokio lehenik eta behin. Ingurune honetan aro koaternarioko material bigunak dira nagusi. Hemen bat egiten dute ur gezek ur gazi eta gazikarekin, eta gune honetantxe aurkitzen ditugu Bidasoa behereak osatzen duen arro osoaren ezaugarri bereizgarrienak. Bidasoa ibaiak Jaizubia errekaarekin osatzen duen padura inguru honetako natur gune baliotsu eta bereziena dugu. Urteko zikloetan zehar erliebe lauко bazter honetan bizi diren landare eta animaliek dituzten berezitasunak direla eta, padura hau nabarmen gailentzen zaie goian aipatutako gainerako biotopoei.

Mendeetan zehar izugarri murriztu da padura honen hedadura giza jardueraren eraginez. Hasiara batean lehortutako lur-eremuak lur berriak lantzeko erabili ziren nagusiki, eta hirien handitzeak ez zuen eragin handiegirik izan paduraren degradazioan. Baina mende honetan zehar alderantzikatu egin da joera hori eta Txingudi ingurutzan duten hiru udaletako hirien zabalerak batetik, eta ko-

la actualidad únicamente permanecen como masas boscosas caducifolias de entidad el roble dal barranco de Endara y los entornos de la cascada de Enbido. El territorio del roble pedunculado, a pesar de haber sido disminuido por sucesivas talas, tiene una presencia importante junto con la singular flora de porte arbustivo y herbáceo que le acompaña tanto en el valle compartido por los términos municipales de Lesaka e Irún como en el entorno de la cascada de Enbido. Fuera de estos barrancos sureños de Txingudi las masas de frondosa no pasan de ser, en los mejores casos, pequeños rodales distribuidos en zonas marginales de la campiña.

Txingudi es, en primer lugar, el nombre de la bahía que forma el río Bidasoa en la rada de Higer. Este espacio caracterizado por los materiales blandos de origen cuaternario, zona de intercambio de aguas dulces con aguas salobres y salinas, es el biotopo que da carácter a toda la cuenca del bajo Bidasoa. La marisma que forma el río Bidasoa junto con la regata de Jaizubia es el territorio natural más valioso y singular con el que cuenta toda la zona. La enorme singularidad de las poblaciones vegetales y animales que se asientan en este espacio de relieve plano a lo largo de los sucesivos ciclos anuales hace que la marisma sea un valor descolante sobre los biotopos anteriormente citados.

Su extensión territorial ha sido fuertemente constreñida a lo largo de los siglos por la actividad humana. Inicialmente los terrenos desecados fueron destinados, en su mayor parte, a la puesta en cultivo de nuevas tierras mientras que el proceso de expansión urbana tuvo una importancia de menor orden en la degradación de la marisma. Esta tendencia se vio subvertida durante el presente siglo al ser ocupadas



9. argazkia. Hondarribiko kaia.

Foto 9. Puerto pesquero de Hondarribia.

munitaterako ekipamenduen eraikuntzak bestetik, ordura arte padurako biotopo gisa gorde izandako lurrak eta, lur-lanketa estentsiborako erabilita ere, paduraren berezko ezaugarriak eusten zieten lurzati handiak kendu dizkiote padurari.

Gaur egun Bidasoako Irlak, Plaiaundi, Jaizubia harana, Kosta auzoa, eta badia bera dira padura-izaerari eusten dieten eremu bakarrak, batzuek guztiz eutsi ere, eta besteek nolabaiteko aldaketak jasan dituztelarik.

1.4. Giza ingurunea

Hendaia, Hondarribia eta Irungo udalek osatzen dute Txingudiko hiri-sarea. Hiru herriek 80.000 biztanle dituzte guztira uda-garaitik kanpo, baina ekaina eta iraila bitartean nabarmen handitzen da kopuru hori, lehen bi herrietara turista asko baitator mendearen hasierako urteetan ekindako turismo-tradizio errotuari eutsiz. Txingudiko turismo-tradizio hori Bidasoako paduraren barra osatzen duten bi hondartzetan oinarritzen da nagusiki.

Gorago aipatu dugunez, Hendaia eta Hondarribiko ekonomiaren euskarri nagusienetakoak turismoa eta turismoarekin lotutako jarduerak dira. Gainerako sektore ekonomiko garrantzitsuak ez datoz bat bi hirietan: Hen-

tanto por la expansión urbana de las tres localidades de la zona como por la construcción de equipamientos comunitarios porciones muy importantes de terreno que, o bien hasta ese momento permanecían como biotopo marismeano o bien eran terrenos objeto de cultivo intensivo que mantenían características marismeanas, de alta reversibilidad por tanto.

En el momento actual únicamente las Islas del Bidasoa, Playaundi, el valle de Jaizubia, el barrio Kosta, además de la propia bahía, mantienen el carácter marismeano en unos casos de manera plena y, en otros, atenuada por el distinto nivel de alteración que padecen.

1.4. El medio humano

Hendaya, Hondarribia e Irún son las tres localidades que forman el entramado urbano de Txingudi. El poblamiento que acogen entre las tres ciudades alcanza, fuera de la época estival, los 80.000 habitantes. Esta densidad humana se acrecienta de manera muy notable durante los meses estivales al ser las dos primeras localidades mencionadas tradicionales destinos turísticos desde las primeras décadas del presente siglo, cuando la actividad turística como tal comenzó a implantarse como característica sociológica de Occidente. Esta tradición turística de Txingudi se fundamenta en la existencia de las dos playas que forman la barra de la marisma del Bidasoa.

Como ya se ha mencionado, Hendaya y Hondarribia tienen en el sector turístico y actividades asociadas uno de los puntales de su economía. Los restantes sectores económicos importantes difieren entre sí en estas dos localidades.

daiak gorantz zihoan merkataritza-sektorea zeukan, baina Europako Batasunak muga eta aduanei dagokienez finkatutako egitura berriaren eraginez behera egin du nabarmen azken urteotan, eta aldi berean industria-sektore txiki bat ezartzea lortu du. Arrantzak ere, Hendaian tradizio gutxiokoa izanik ere, gora egin du azken hamarkadan, baina oraindik ere oso leku txikia hartzen du Hendaiaiko ekonomian.

Hondarribiko bigarren sektore ekonomikoa itsasbazterreko arrantza da. Bizkaiko itsasoko portu honetako flotak aldaketa sakonak jasan ditu azken hamarkadetan, mendeetan zehar ustiatu izan dituen arrain-stockak agortuz joan direla eta.

Irun dugu Txingudiko gune ekonomiko nagusia. Hiri honetako jarduera ekonomikoa industria eta zerbitzuen artean banatzen da. 1992 urtera arte aduanen sektorean eta berekin lotutako jardueretan oinarritzen ziren Irungo enpresa gehienak, baina Agiri Bakuna ezarriz geroztik sortutako Europako egitura berriak ordura arte ekonomia oinarri nagusienetakoa izandakoa —eta Txingudiren azken mendeko motore ekonomikoa izandakoa— aldatu egin zuen. Nolanahi ere, zerbitzuen sektorea nagusi dugu Irungo ekonomian oraindik ere, Agiri Bakunaren ondoren sortutako egoera berriaren ondorioz finkatu diren enpresa-alorreko ekimen berriei esker. Industria-sektoreak, bada, zonalde honetako ekonomian beti izan duen garrantziari heldu dio.

Bidasoako hiru herrietan oso garrantzi gutxi du nekazaritza-sektoreak, 50. eta 60. hamarkadetan Gipuzkoako bi herriek —Irun eta Hondarribiak— eta Hendaia zertxo-

Hendaya poseía hasta fechas recientes un floreciente sector comercial que se ha visto reducido de modo muy considerable en los últimos años debido a los cambios que ha propiciado la nueva estructura Comunitaria de fronteras y aduanas. Durante los últimos lustros ha logrado implantar un pequeño sector industrial. También el sector pesquero —tradicionalmente de muy baja presencia en Hendaya— ha visto aumentar sus efectivos en la última década pero sigue manteniendo un peso económico bajo en la economía local.

Hondarriba tiene como segundo sector económico importante la pesca de bajura. Tradicional puerto pesquero cántabro, también ha sufrido un cambio en la estructura de su flota durante los últimos decenios, reflejo del agotamiento de los stocks que explotaba históricamente.

Irún, el principal núcleo económico de Txingudi, tiene una actividad diversificada en sectores industriales y de servicios. Hasta 1992 primaba de manera importante en su configuración empresarial el muy pujante sector aduanero con sus actividades asociadas. La estructura europea surgida tras la implantación del Acta Única vino a modificar uno de sus pilares económicos tradicionales —el motor económico de Txingudi en el último siglo— pero en la actualidad el sector servicios mantiene su preeminencia en la economía de Irún tras las nuevas iniciativas empresariales que se han implantado, paradójicamente, como consecuencia de la nueva realidad impuesta por el Acta Única. El sector industrial mantiene la importancia que tradicionalmente ha tenido en la economía de la zona.


En las tres localidades bidasotarras el sector primario agrícola tiene una importancia muy baja, producto de la radical transformación económica que tuvo el país en las década-



Joseko Riofrio

10. argazkia. Industrialdea (Irun).

Foto 10. Polígono industrial (Irún).



11. argazkia. Baratzak paduretan (Osinbiribil-Irun)

Foto 11. Huertas en la marisma (Osinbiribil-Irún).

bait lehentxeago izandako aldaketa ekonomiko sakonaren ondorioz.

Sektore ekonomiko txiki honek Hondarribian du garrantzirik handien, Kostako ibarrean eta Jaizubia haranean hain zuzen ere. Ondoren Txingudin saltzen den baratzezaintza bikaina lantzen da bertan, bertakoek zein kanpotarrek estimu handitan dutena. Baratzezaintza horrez gain, nagusiki behi-esnea ekoizten duen abeltzaintza intentsiboa aipatu behar dugu lehen sektore horretan. Bestalde, Gipuzkoako hegoaldetik artaldeak ekartzen dituzte Txingudira negua igarotzeko.

das de los años 50 y 60 en lo que respecta a las localidades guipuzcoanas y algo anterior en Hendaya.

Donde mayor importancia tiene este pequeño sector económico es en Hondarribia, concretamente en la vega de Kosta y en el valle de Jaizubia se practica una horticultura primorosa con destino al mercado local de Txingudi, de muy alta calidad y apreciado por oriundos y foráneos. Al margen de este tipo de horticultura el resto del sector es ganadero intensivo dedicado mayoritariamente a la producción láctea vacuna. Por otra parte, Txingudi es punto de destino invernal de rebaños de ovejas procedentes de las sierras meridionales guipuzcoanas.

**2. Txingudik hegazti-
-faunaren babeserako
duen garrantzia**

**2. La importancia de
Txingudi en la
conservación de las
poblaciones de avifauna**

2.1. Txingudi migrazioaren ohiko igaroleku

Txingudik hegazti-faunaren ohiko igaroleku gisa duen garrantzia antzinatik dator. Beste askotan bezala, ehiztariak izan ziren Txingudiko paduretako hegazti-fauna migratzailearen maila handia agerian utzi zuten aurrenekoak. Padura hauetatik kanpo aurkitzen zailak ziren padura-inguruetako espezieak nabarmentzen ziren ingurune honetan. Padura hautan oso ugaria zen hegazti-fauna, eta hala, mende honetan zehar kanpotik etorritako ehiztari trebatuek Plaiaundin udazkeneko hilabeteak eman ondoren, Espainia osoko ehizalekurik onena zela esan ohi zuten. Horrelako adierazpenek, eztabaidagarriak izanik ere, agerian uzten dute gure padurak hegazti-fauna migratzailearentzat maila handia izan zuela garai batean. Eta gainera lagun zuen guztiz aratza izan gabe ere egungoa baino arras hobea zen ingurugiroaren egoera (duela zenbait mende hasiak ziren eta Bidasoa eta Jaizubiaren ibilguen lehortze-lanak).

2.1. Txingudi como lugar tradicional en la migración

La importancia de Txingudi como lugar tradicional en los trasiegos migratorios de la avifauna es conocida de antiguo. Como en tantas otras ocasiones, fueron los cazadores los primeros en poner de manifiesto la alta calidad de las marismas de Txingudi para la avifauna migratoria. Sobresalía la presencia en la zona de especies ligadas a ambientes palustres de difícil localización fuera de estas marismas. El volumen de avifauna presente en la marisma era tal que, durante el presente siglo, cazadores foráneos de larga trayectoria llegaron a afirmar que Playaundi era el mejor cazadero de España tras visitar la zona durante los meses otoñales. Afirmaciones como ésta, discutibles quizá en su literalidad, dan una idea cabal de la calidad que tuvo algún día nuestra marisma para la avifauna migratoria. Todo ello se beneficiaba de una situación ambiental que aunque no prístina (hacia ya siglos que se había comenzado con las desecaciones de los cauces del Bidasoa y de Jaizubia) sí era notablemente mejor que la actual.



Joseixo Ricó/Info

12. argazkia. Txirri arrunten (*Calidris alpina*) taldea

Foto 12. Bando de correlimos comunes (*Calidris alpina*).

Txingudira ezteiaurreko eta ezteiondoko migrazioa etortzen zaigu, baina azken mota honetako migrazioak dakarkigu hegaztirik gehien. Ezteiaurreko edo udaberriko migrazioan, negua eman duten inguruetatik datozkigu iparraldean ugaltzen direneko inguruetarako bidean. Ezteiondoko migrazioan, berriz, habia jarri duten tokietatik negupasarako bazter beroagoetara doazela igarotzen dira Txinguditik.

Ezteiaurreko migrazioaren ezaugarrien artean, batetik bestera hegazti-kopuru urria dabilela nabarmentzen da, negupasarako lekuetan egiten den hautespen sakonaren ondorioz. Negu-garaian nabarmen aldatzen dira giroari eta elikadurari dagozkien baldintzak udara eta udaberriaren aldean eta elikagaiak ez dira beste bi urtaro horietan bezain ugari eta eskuraerazak. Hala, urritasun eta gabezia handiko sasoi honetan hegazti ugari hiltzen da eta ondorioz, negua amaitzean ugalketa-eremuetarako itzulerabidea egiten duen hegaztien kopurua nabarmen urritzen da. Udaberriko migrazioari dagokionez, bizkortasuna eta hegaztiak elkarren segidan ibiltzen direla nabarmendu ditzakegu, izan ere, eguneroko txandatan igarotzen baitira Txingudi gainera.

Txinguditik ordena eta mota askotako espezie ugari igarotzen da etengabe, eta horrenbestez, migrazioa udaberri eta udazkenara mugatzen dituen betiko eskema ez da oso egokia gurean gertatzen dena azaltzeko.

Ekainean zehar, esate baterako, Britainia eta Eskandinaviako lur garaietara doazen azken zangaluzeak Txinguditik igaro eta egun gutxitara, ezteiondoko lehen hegaztiak iristen hasten zaizkigu. Gehienetan antxeta mokogorriak izaten ditugu, gurea baino hegoalderago dauden inguruko lurretan habia jartzen dutenak, edo kuliska iluna bezalako hankaluzeak, urutiagoko lurretatik datozela negupasako lurretarako itzuleran.

Uztailan arretaz begiratu gero Sahara zeharkatzen duten migratzaileen hegaldia ikusteko aukera izango dugu. Hegaztiok neurri txikikoak izaten dira eta era askotako padurako landaredian bizi ohi dira. Abuztuan goia jotzen du ezteiondoko migrazioak eta Txingudi ingurutik zangaluzeen espezieko hegaztiak eta itsas hegaztiak igarotzen dira, zenbaitzuk Zirkulu Polar Arktiarra baino iparralderagoko lurretatik datozela, eta beste batzuk Akitaniako ugalketa-inguruetatik.

Geografikoki hain mugatua den espazio batetik hainbeste hegazti igarotzea bi ezaugarri zor zaio. Batetik, Txingudiren zati handi bat padurez osatua egoteari. Bertan hezegune funtzionalak daudela eta, paduretako biotopoein lotutako hegaztiak migratzen ari direnean atseden hartu eta elikagaiak hornitzeko gune egokia dute honakoa. Bigarren ezaugarria, Txingudik duen kokapen geografikoa dugu. Europako Kostalde Atlantikoko migrazioaren igarobide nagusiaren erdi-erdian kokatuta dago Txingudi, eta hala, hau baino gutxiago kaltetutako paduretaren baino hegazti gehiago igarotzen dira gure lurretatik. Oso padura apala dugu Txingudikoa, baina oso leku aproposan kokatutakoa.

En Txingudi se reflejan tanto la migración prenupcial como la postnupcial pero es ésta última la que mayor volumen de aves aporta a la zona. La migración prenupcial o primaveral es la que lleva a las aves desde los lugares donde han permanecido el invierno hasta sus lugares de cría en el norte. La migración postnupcial sirve para desplazar a las aves desde sus lugares de nidificación hasta las áreas de invernada, más cálidas y con alimento.

Una de las características de la migración prenupcial es el número relativamente bajo de contingentes migratorios que mueve debido a la amplia selección que se da en los lugares de invernada. El período invernal es una época en la que las condiciones ambientales y alimenticias han variado notablemente desde la primavera y el verano, cuando los recursos tróficos son abundantes y la accesibilidad a los mismos alta, transformándose en una época de escasez y carencias que tiene como resultado un alto nivel de mortandad y, consecuentemente, una disminución de los efectivos que pueden emprender el trayecto de retorno al final del invierno hacia las áreas de reproducción. Dos características de la migración primaveral son lo veloz de su tránsito y la sucesión de efectivos, con turnos diarios.

El continuo paso de una gran cantidad de especies de aves diferentes por Txingudi pertenecientes a diversos órdenes hace que el esquema tradicionalmente aceptado que constriñe los movimientos migratorios a la primavera y el otoño quede un tanto desfasado en nuestra zona.

Durante el mes de junio, por poner un ejemplo, cuando apenas hace unos días que han trasegado por la zona los últimos limícolas en ruta hacia las altas tierras Británicas y Escandinavas ya llegan a Txingudi los primeros migrantes postnupciales. Habitualmente suelen ser gaviotas reidoras nidificantes en latitudes más septentrionales a nuestra zona, pero posiblemente próximas, y limícolas como el andarríos grande que, procedentes de distancias más lejanas, ya se encuentran en pleno vuelo de retorno hacia los cuarteles de invernada.

En el mes de julio se percibe de una manera notable, para los observadores atentos, el trasiego de los migrantes transaharianos, aves normalmente de pequeño tamaño físico y que desarrollan su vida entre la vegetación palustre de diverso tipo. En agosto la migración postnupcial está en pleno apogeo al presentarse en la zona importantes efectivos de diversas especies de limícolas y aves marinas, en algunos casos procedentes de latitudes más septentrionales que el Círculo Polar Ártico y en otros provenientes de colonias de cría aquitanas, relativamente próximas, por tanto.

Esta alta canalización de aves por un espacio geográficamente tan limitado viene motivada por dos características. La primera de ellas es la naturaleza marismeña de una porción significativa de Txingudi. La existencia de zonas húmedas funcionales hace que aves ligadas a biotopos palustres tengan un espacio para recalcar en sus trayectos migratorios y procurarse alimento. El segundo factor viene dado por la posición geográfica que ocupa Txingudi. Queda situado en el centro del principal pasillo migratorio de la costa atlántica europea y esta característica le aporta un mayor volumen de aves que a otras marismas con un menor nivel de alteración. Se trata de una marisma espacialmente modesta pero extraordinariamente bien situada.



13. argazkia. Plaiaundiko Parke ekologikoa.

Foto 13. Parque ecológico de Playaundi.

2.2. Txingudiko biotopoez hegazti- -populazioen babeserako duten garrantzia

Txingudik, hain eremu txikia izanda ere, biotopo ugari biltzen ditu eta bertan aurkitzen dugun inguruneen aniztasunak berariazko aniztasun handia ematen dio. Hirugarren zonaldean dauden zazpi biotopoen artean padura, harizti atlantikoa eta harkaiztia nabarmentzen dira. Hegazti-fauna osatzen duten taldeak, eta hauekin batera gainerako animalia eta landareak, bestelako arazorik izan gabe Txingudiko natur gunean biziraun ahal izateko bermerik onena ingurune hauek gaur egunera arte gorde dituzten ingurugiro-ezaugarriek eustea litzateke.

Bidasoa ibaiak osatzen dituen padurak ditugu Txingudiko biotopo bereziena. Gainera, urte osoan zehar bertara doan hegazti-komunitate arras garrantzitsuak areagotu egiten du berezitasun hori. Eta Txingudiko paduretan dauden nitxo ugarietan elkarrekiko antzekotasun handirik gabeko hegazti ugari aurkitzen ditugu.

Padurako mailarik baxuenean, ur-xafla alegia, anati-oak, aliotak, antxetak, txenadak eta abar biltzen dira atsedean hartu eta elikatzeko. Hurrengo mailan, marea-dun espazio orotan aurkitzen ditugun hondartza lohitsu eta hondartsuetan, hankaluzeak, lertxunak, mokozabalak, lertxuntxoak, antxetak eta abar biltzen dira itsas-behera dagoen tarteetan. Ingurune lohitsuaren aldean, marearen eragin txikiagoa duten eremuak ez dira oso egokiak izaten goian aipatu ditugun espezie gehientsuentzat, baina paduren dinamikatik kanpo dauden txori

2.2. Los biotopos de Txingudi en la conservación de las poblaciones orníticas

El pequeño territorio de Txingudi es un crisol de biotopos y el mantenimiento de una alta diferenciación ambiental es siempre sinónimo de una gran diversidad específica. De los siete biotopos que se encuentran en la zona tres destacan por su elevada calidad: la marisma, el robledal atlántico y el roquedo. La mejor garantía para que los diferentes grupos avifaunísticos puedan prosperar sin mayores problemas añadidos, y con ellos el resto de comunidades vegetales y animales, en el área natural de Txingudi es que estos lugares continúen reuniendo las características ambientales que hasta el momento han logrado mantener.

El espacio marismeño que forma el río Bidasoa es el biotopo más singular de los que posee Txingudi. Además, ésta realidad se ve acrecentada por la importantísima comunidad de aves que acoge a lo largo del año —extraordinariamente variada, singular y numerosa—. En su seno se dan una diversidad de nichos que hacen posible su uso por parte de aves con escasas características comunes.

En todo momento el nivel más bajo de la marisma, la lámina de agua, sirve a anátidas, colimbos, gaviotas, charranes, etc. para descansar y alimentarse. El siguiente nivel, las playas de arena y fango, característicos de cualquier espacio mareal, son utilizados para la alimentación por limícolas, garzas, espátulas, garcetas, gaviotas, etc. durante los periodos de tiempo que la marea se encuentra retirada. Aquellos terrenos que tienen influencia mareal más atenuada que las zonas fangosas en razón de su cota más elevada no son especialmente propicios para gran parte de las especies anteriormen-



14. argazkia. Paduretako hegaztia: Lertxun hausgara (*Ardea cinerea*)

Foto 14. Ave marismeña: Garza real (*Ardea cinerea*).



15. argazkia. Hariztietako hegaztia: Txantxangorria (*Erithacus rubecula*).

Foto 15. Ave de robleal: Petirrojo (*Erithacus rubecula*).

txikiak ondo moldatzen dira eremu horietan. Fringilido eta alauidoeak, esate baterako, negua igartzeko leku aproposa aurkitzen dute hemen. Lezkadiak goraguneetan errotzen dira eta hegazti ugariaren habitata osatzen dute, hala nola, lezkari, benarriz, paparrurdin, ihi-txori, dilindari eta abarrena. Goi-paduran, hau da, mareak eraginik duen badiaren barratik aldendutako inguruan, belardiak aurkitzen ditugu, eta bertako landaredian desagertu egiten dira inguru gazikaretako landare asko. Bertan belardiko zangaluzeak biltzen dira, hegaberak eta txirriak esate baterako, baina ingurune hauek gizakiek sortutako eta nekazaritzarako erabiltzen diren belardi artifizialez ordeztuz joan dira, neurri handi batean.

Paduraren beste aldean, Endara sakanean, inguru honetako harizti bikainena aurkitzen dugu. Bazter hau oso malkartsua da eta Europako baso hostoerorkor epeleko hegazti-komunitate handi bat bertakotu ohi da bertan. Bere hedadurari esker, gorpuzkera handiko espezieek (harrapariak gehienak ere) bertan egiten dituzte habiak. Bestalde, harizti honek baino hedadura txikiagoko basoek ez dute bestelako espezieak finkatu ahal izateko gutxieneko baldintza ekologikoak betetzen. Eta horren ondorioz, areagotu egiten da ingurune honen interesa, gorpuzkera eta kalitate handiko hegazti lurtar askorik ez den gurea bezalako herri batean. Gure lurraldearen luzezabalera txikiaren eta hegaztiak hemendik igartzeko duten erraztasun handiaren ondorioz, oso arruntak ditugu Endarako hariztiko hegaztien eta padura-inguruko eta hariztiko bertako biztanleen arteko elkarreraginak.

te mencionadas pero pequeños pájaros, en principio ajenos a la dinámica marismeña, hacen uso de él. Por ejemplo, durante el invierno, fringílidos y aláuidos encuentran entre la vegetación salobre un idóneo lugar para la invernada. Los carrizales también se asientan en terrenos con cierta elevación y sirven de hábitat a todo un gremio de aves tan específicas como son los carriceros, buscarlas, pechiazules, buitrones, pájaros moscones, etc. Ya en la marisma alta, es decir, en lugares relativamente alejados de la barra de la bahía donde la influencia mareal es perceptible episódicamente quedan situados prados donde la vegetación pierde gran parte de las plantas propicias a los ambientes salobres. Sirven de asiento para límcolas de pradera como avefrías y chorlitos pero, en gran medida, este medio ha sido ocupado por las praderas artificiales, de factura humana y uso agropecuario.

En el lado opuesto a la marisma, en el barranco de Endara, prospera el mejor robledal de nuestra zona. Este área, de relieve accidentado en grado sumo, da cobijo a una importante comunidad de aves del bosque caducifolio templado europeo. Su extensión propicia que diversas especies de gran porte (rapaces principalmente) tengan en él sus espacios de nidificación. Superficies forestadas de menor tamaño no llegan a alcanzar los mínimos ecológicos necesarios para que las diferentes especies puedan establecerse. Este hecho, para un país que se caracteriza por la escasa presencia de especies de aves terrestres de cierto porte y de gran calidad, aporta un interés añadido. Lo constreñido de nuestro territorio y la enorme facilidad de las aves para el desplazamiento hace que las interacciones de las aves del robledal de Endara con el espacio marismeño y sus habitantes no sean anecdóticas.

Josebo Rifo



16. argazkia. Harkaitzetako hegaztia: Sai arrea (*Gyps fulvus*).

Foto 16. Ave de roquedo: Buitre leonardo (*Gyps fulvus*).

Harkaiztia, Aiako Harriko harkaiztia kasu honetan, Txingudin nabarmendu beharreko hirugarren biotopoa dugu: bertan egiten du habia sai arreak (*Gyps fulvus*), eta horri esker garrantzi handiko bazterra dugu harkaizti hau. Horrez gain, maila oso handiko espezieak bertara etortzen dira ugaltzera eta, urteko hilabete epelak Alpeetan eta Pirinioetan ematen dituzten hegaztiak Txingudiren sabaiko itsaslabarretan finkatzen dira negualdian. Besteak beste, mendi-tuntuna (*Prunella collaris*) eta harkaitz-txoria (*Tichodroma muraria*).

Landazabala, pinudiak, otalurrak eta, jakina, hiri-inguruneak garrantzi gutxiago dute hegazti-faunari dagokionez gorago aipatu ditugun hiru biotopoei baino, baina, hala eta guztiz ere, aintzakotzat hartu beharrekoak dira, zenbait hegazti-populazio ingurune horietan finkatzen baitira, eta horren bidez berariazko aberastasun handiagoa damaiote Txingudiri.

Aipatu ditugun lau biotopoen artean, landazabala dugu hegaztientzat garrantzitsuena, fringilidoentzat bereziki. Ezteiaurreko migrazioan —garrantzi handikoa gure inguruan aurrerago azalduko dugunez— landazabaleko sega-belardiak elikagai ugari eskaintzen dizkie hegazti hauei. Bestalde, landazabala dugu neguan hegaztirik gehien hartzen duen biotopo naturala, nahiz erdinatural deitzea egokiago litzatekeen.

Espezie askotako birigarroak, hegabera eta kurlinta handia bezalako padura-hegaztiak eta hotz-bolada latzen erruz, sasoi fisiko kaskarrean dauden beste espezie ugari biltzen dira negu latzean belardi hauetan.

Endarako hariztia eta Aiako Harriko harkaiztia Aiako Harriko Parke Natural delakoaren barnean daude. Parke Natural izendapenak ematen duen legezko babes honi esker, halako segurtasun bat duen gune biek eta inguruak esparruek etorkizunera begira.

Txingudiko altxorari dagokionez —padura alegia—, egoera korapilatsuagoa bizi du, izan ere, egun duen kokagunea dela eta, garatzen ari diren hiru hirien erdian hain zuzen ere, kolokan dago bere etorkizuna. Nolanahi ere, berriki eraikitako Plaiaundiko Ekologia Parkea bezalako jarduketek ematen dute itxaropenik, baina guztiz leheneratzeko behar diren jarduketak burutu arte oso luze joko du oraindik, eta ondorioz, ez dirudi datozen urteak oso itxaropentsuak izango direnik.

2.3. Txingudiko hegazti-faunarekiko interesa

Txingudiko hegazti-fauna jatorri mistokoa da eta ondorioz, elkarriz gainjarri egiten zaizkio jatorri desberdinekoak diren populazioak. Bertako populazioek oso dentsitate apala dute, eta norantza bietan eta negu hilabeteetan migratzen duten hegazti ugariak osatu egiten dute eskasia hori.

Oro har, ezteiondoko migrazio-garaian etortzen zaizkigu hegazti-multzo handienak padura-inguruetara. Nolanahi ere, zenbait urtean behin, negu gorriko meteorologia ohikoa baino latzagoa izaten da, bestela on samarra izaten bada ere, eta negupasarako iparralderago jo ohi duten padurako hegazti ugari guregana etortzen zaizkigu,

El roquedo, en este caso el roquedo de Peñas de Aya, es el tercer biotopo de Txingudi de valor sobresaliente: en él nidifica el buitre leonado (*Gyps fulvus*). Únicamente por este hecho su importancia alcanza ya el mayor nivel pero, además, da cobijo reproductor a otras especies de muy elevada calidad y, durante la invernada, aves con distribución alpina pirenaica en los meses cálidos del año se instalan en los farallones del techo de Txingudi. Nos referimos al acenator alpino (*Prunella collaris*) y al treparriscos (*Tichodroma muraria*).

La campiña, los pinares, las landas y, por supuesto, el medio urbano, son espacios de un interés avifaunístico de menor rango que los tres biotopos citados pero ninguno de ellos es enteramente desdeñable. Sirven de asentamiento a diferentes poblaciones de aves aportando a Txingudi una mayor riqueza específica.

De los cuatro citados, la campiña es el biotopo más importante para las aves, sobre todo para los fringílidos. Durante la migración prenupcial de estas aves, muy importante en nuestra zona, como se comenta más adelante, las praderas de siega de la campiña aportan abundantes recursos tróficos. No solo eso, es el biotopo natural (quizá fuera más apropiado denominarlo seminatural) que más aves acoge durante el invierno.

Los inviernos rigurosos estas mismas praderas dan cobijo a multitud de zorzales de diversas especies, aves de marisma como avefrías o zarapitos reales y otras especies en maltrecha situación física debido a olas de frío muy acusadas.

Tanto el robledal de Endara como el roquedo de Peñas de Aya forman parte del Parque Natural de Peñas de Aya. Esta protección legal otorga a ambos espacios y a los territorios circundantes un cierto grado de seguridad sobre su futuro.

El caso de la joya de Txingudi, la marisma, es más complicado. Su delicado estado actual junto con su emplazamiento entre tres ciudades en expansión hace que tenga un futuro incierto. Actuaciones como la reciente construcción del Parque Ecológico de Playaundi dan motivos para la esperanza pero la lentitud con que se abordan otras actuaciones necesarias para su restauración integral abonan la idea de tiempos venideros poco risueños.

2.3. Interés de las poblaciones de avifauna de Txingudi

El carácter mixto del origen de la avifauna de Txingudi produce los solapamientos consiguientes entre las poblaciones de distinta procedencia. La baja densidad de poblaciones de aves autóctonas es completada por un copioso contingente de aves trasegantes por la zona en ambas migraciones y durante los meses invernales.

Es, por lo regular, durante la migración postnupcial cuando mayores son los contingentes de aves que recalcan en los territorios marismesños. Sin embargo, cada cierto número de años, los rigores extraordinarios de una meteorología pleoninvernal, por lo común benigna, hace que estos territorios tengan que albergar muy importantes efectivos de aves pa-



17. argazkia. Higerreko sarea.

Foto 17. Red de Higer.

negua igarotzen ohi dituzten bazter horietako baldintzak biziraun ahal izateko egokiak ez direla eta.

Hegazti-fauna dugu hobekien aztertu den talde zoolo-
gikoa eta, hori dela eta, talde hori erabili ohi da natur
gune gehienen kalitate-mailaren adierazletzat. Joan den
mendetik datorkigu joera hori, orduan hasi baitziren natur
inguruneak zaintzen (ordura arte natur guneak ehizarako
babesten ziren soilik). Gaur egun hegazti-faunari buruzko
parametro horiek erabiltzen dituzte Estatuko agentziek
eta ingurugiro-erakundeek natur gune horiek babesteko
katalogo, indize eta abarretarako sailkapenak egiteko ga-
raian.

lustres invernantes en latitudes más norteñas y que son obli-
gadas a trasladarse de lugar puesto que las condiciones da-
das en sus lugares habituales de invernada no son aptas
para la vida.

Al ser la avifauna el grupo zoológico mejor estudiado es
el descriptor más utilizado en el momento de evaluar el gra-
do de calidad de la mayor parte de los espacios naturales.
Esto se lleva haciendo desde el siglo pasado, cuando se ini-
ció la protección del medio natural propiamente dicha (hasta
entonces únicamente se protegían espacios naturales con
fines cinegéticos). En la actualidad las diferentes agencias
estatales y organismos medioambientales consideran estos
parámetros avifaunísticos para evaluar la inclusión de las di-
ferentes áreas naturales en catálogos, índices, etc. de cara
a la protección de los diferentes espacios naturales.

**3. Txingudiko hegaztiei
buruzko ikerlanak**

**3. Investigaciones sobre
aves en Txingudi**

3.1. Laburpen historikoa

Txingudi da Euskal Herrian tradizio ornitologiko luzeena duen zonaldea. 50. hamarkadaren azken urteetan hasi zen tradizio hori, 1959an hain zuzen ere, Aranzadi Zientzi Elkarteko kideek Higer lumuturrean estazio ornitologiko bat jartzearekin batera. Ezteiaurreko migrazioan euskal itsasbazterra zeharkatzen zituzten hankaluze ugari buruzko azterlanak egiteko sortu zen estazio hori. Ordurako, erakunde bereko eraztun-jartzaile talde batek helburu bertsuetarako beste estazio bat jarria zuen Txingudi inguruan, Jaizkibel mendiko itsasaldean, Pasai Donibaneko udalbarrutian. Higer lumuturreko estazioan Pasaiaren egiten zenaren antzeko lana burutu nahi zuten, baina Irungo bizilagunek eginez. Azkeneko Higerko estazioak iraun zuen soilik, eta Pasaiakoa, aldiz, itxi egin zuten hirurogeita hamargarren hamarkadaren lehen urteetan.

Bidasoa ibaiaren bokaleko ingurune honetan hegaztiak garatzen dituzten ziklo biologiko aldakorrek hobeto ezagutzeko ahalegina aspaldidanik dator. Higerko estazio ornitologikoak berrogei urte beteko ditu laster, eta denbora luze honetan zehar gora-behera ugari bizi izan ditu, bai naturak eragindako kausen ondorioz, bai antolakuntza-alorreko arazoengatik.

60. hamarkadaren amaiera aldean, beste adar bat jorratzen hasi ziren ingurune honetako azterketa ornitologikoak Txingudin habia egiten zuten baso-hegaztiak aztertuko zituen talde bat sortu baitzen. Zenbait urtetan zehar, Jaizubia haraneko goiko aldean habia egiteko ipinitako kutxak erabiltzen zituzten hegaztiei buruzko azterketak egin ziren. Izan ere, ehundaka kutxa banatu ziren golfzelaien inguruko basotxoetan, eta basoko hainbat espezie paseriforme bertan finkatu ziren. Talde honetan ordu arte aztertu gabeko beste alderdi bati buruzko jakinmina sortuta, zenbait hankaluze espezie eraztuntzen hasi ziren, hegazti-talde honi buruzko lehenbiziko datuak bilduz.

1967an Alfredo Novalek «Estudio de la avifauna de Guipúzcoa» lana argitaratu zuen. Ingurune honetan finkatutako ornitologiazale honek egindako azterlan hau Gipuzkoako hegazti-faunari buruzko baliozko erreferentzia bakarra izan da bi hamarkadatan zehar, eta Txingudiko paduran eta inguruko mendietan egindako ikerlanetan bildutako datuei esker, Txingudi dugu espezieei buruzko aipamen gehien jasotzen duen ingurunea. Bertan jasotzen diren espezieen artean ardeidoak, anatidoak eta larolimikoloak aipatzen ditu, besteak beste.

3.1. Síntesis histórica

Txingudi es la zona del País Vasco con mayor tradición ornitológica. Ésta tiene su origen en los años finales de la década de los 50. Es concretamente en 1959 cuando miembros de la Sociedad de Ciencias Aranzadi establecen en el cabo de Higer una estación ornitológica para trabajar sobre los importantes contingentes de fringílicos que en su trayecto migratorio prenupcial se canalizan por la costa vasca. Para esas fechas otro equipo de anilladores de la misma entidad ya tenían en funcionamiento otra estación, con finalidad similar, en un lugar próximo a Txingudi. Era en la vertiente costera del monte Jaizkibel, en el término municipal de Pasajes de San Juan. En la estación del cabo de Higer se pretendía realizar un trabajo paralelo al realizado en Pasajes, en este caso llevado a efecto por personas residentes en Irún. Con el tiempo, fue la estación de Higer la que sobrevivió a la de Pasajes, donde la actividad cesó durante los primeros años setenta.

El esfuerzo para conocer mejor los cambiantes ciclos biológicos que las aves desarrollan en este espacio de la desembocadura del río Bidasoa se ha mantenido desde esa lejana fecha hasta la actualidad. El funcionamiento de la estación ornitológica de Higer está cerca de cumplir los cuarenta años. A lo largo de este dilatado espacio de tiempo su funcionamiento ha experimentado fluctuaciones debidas tanto a causas naturales como a motivos organizativos.

A finales de la década de los 60 aparece una nueva vertiente en los estudios ornitológicos de la zona al formarse un equipo humano que inaugura los estudios en aves forestales nidificantes en Txingudi. Durante varios años se realizan estudios de ocupación de cajas anidaderas en la zona alta del valle de Jaizubia. Se instalaron varios cientos de estas cajas en los bosquetes que circundan a los campos de golf que fueron ocupadas por diversas especies de paseriformes forestales. En ese mismo equipo surge el interés por conocer otro aspecto que hasta entonces no se había estudiado y se comienza la labor anilladora sobre ciertas especies de limícolas obteniéndose así los primeros datos sobre este grupo de aves.

En el año 1967 Alfredo Noval, un ornitólogo aficionado asentado en la zona temporalmente, publica su trabajo «Estudio de la avifauna de Guipúzcoa». En este trabajo, que durante dos décadas fue la única referencia válida sobre la avifauna guipuzcoana, Txingudi es la zona con mayor número de referencias sobre presencia de especies, principalmente de ardeidos, anátidas y larolimícolas, fruto de sus prospecciones por la marisma y montes de la zona.



18. argazkia. Hegazti behatzaileak Plaiaundin.

Foto 18. Observadores de aves en Playaundi.

80. hamarkadan paduraren erdialderantz hedatu ziren azterlanak. Hainbat urtetan zehar, ordura arte aintzako-tzat hartu gabeko padurako hegaztiak eraztundu ziren, eta horri esker, ordura arte bertaratzeko zailtasunengatik behar besteko xehetasunez ezagutzen ez ziren bazterrak, Bidasoako Irlak esate baterako, ezagutzen hasi ziren.

Hamarkada horren erdialdean Jaizubia haraneko lezkadietako padura-eremuekin lotutako espezie paseriformeak aztertzeari ekin zitzaion. Azterlan hauekin batera, Higer lumuturretik igarotzen ziren hegazti urtar migratzaileen zenbaketa sistematikoa egin zen 1984ko udazkeneko hilabeteetan; eta itsas eta padura-eremuekin lotutako hegaztiei buruzko azterketa hauez gain, ingurune honen hegoaldeko, Endara sakaneko hain zuzen ere, hegazti harrapariak aztertu ziren halaber.

80. hamarkadaren bigarren erdian baso zein padurako hainbat biotopoetako espezie paseriformeei buruzko azterlanak burutu ziren. Txingudi da Euskal Herrian hegazti negutarren zenbakizko azterketa egin den ingurune bakarra. Zenbaketa hori laurogeigarren hamarkadan egin zen.

Amaitzeaz dugun laurogeita hamargarren hamarkada honetan aurrekoek hasitako bideari jarraitu zaio, eta ugari egin dira padura-eremuko paseriforme migratzaileei buruzko zenbaketak. Eraztunketak ere nabarmen areagotu dira, egunera arte inoiz lortutako zenbatekoetara iritsiz. Txingudin eraztundutako hegaztien kopuruak izandako handitze nabarmenak denboran luze jo badu ere,

La década de los 80 se inicia con la expansión del área de estudio hacia la parte central de la marisma. Durante varios años se realizan anillamientos continuados sobre especies de avifauna palustre que hasta entonces no se habían manejado. Estas temporadas de anillamiento sirven para constatar la importancia de zonas como las Islas del Bidasoa que por su dificultad de acceso no habían sido reconocidas con el suficiente detalle hasta entonces.

Hacia mediados de esta misma década se trabaja también en los carrizales del valle de Jaizubia sobre paseriformes asociados a este hábitat marismero. Coincidente en el tiempo con estos estudios durante los meses otoñales de 1984 se cuenta de modo sistemático la migración de las aves marinas por el cabo de Higer. Además de los estudios sobre aves ligadas a ambientes marinos y marismeros se investiga la comunidad de aves rapaces en la zona sur del territorio, concretamente en el barranco de Endara.

Ya en la segunda mitad de la década de los 80 se realizan trabajos sobre las comunidades de paseriformes en diferentes biotopos forestales y también marismeros. Txingudi es la única zona del País Vasco en la que se ha realizado un estudio numérico de aves invernantes. Fue realizado también en esta época.

La presente década de los noventa supone una continuidad de lo ya iniciado en la pasada incrementándose el volumen de estudios numéricos realizados sobre paseriformes migratorios en áreas de marisma. También el número de anillamientos crece sustancialmente llegándose a cifras históricas. El notable incremento del número de aves marcadas en Txingudi tiene el efecto paralelo, retardado en el tiempo,

horri esker geroz eta gehiago dira Euskal Herriaz kanpo beste herrialde batzuetan berrito atzemandako Txingudin eraztundutako hegaztiak.

3.2. Metodologia

Ornitologoei etengabe aldatzen ari diren gora-behera ugari eta ikerlana mugatzen duten baldintza ugari aurkeztu zaizkie beren eguneroko zereginetan eta horren ondorioz, espezieak, populazioak edo ingurune geografikoak aztertzeke garaian zenbait teknika eta metodo lehenetsi behar izaten dituzte beste batzuen aldean. Gehienetan metodo bat baino gehiago erabiltzen dute aldi berean, burutzen ari diren ikerketaren helburuak hobeto bete ahal izateko, izan ere, basa-fauna aztertzea oso korapilatsua izaten baita. Gainera, denborak aurrera egin ahala, bitarteko berriak sortzen dira, eta ordura arte erabilitako metodoekin aurreikusitako ezinezkoak ziren bideak urratzen dituzte, bildutako datuen onerako betiere. Txingudi bezalako eremu batean ikerketak egiteko erabilitako teknikak hobetu egin dira denborarekin, baina hegaztiak ikertzeari ekin zitzaionean erabiltzen ziren hainbat eta hainbat teknika erabiltzen jarraitzen dute ikerlariek oraindik orain.


Txingudin bizi den hegazti-faunari buruzko ikerketetan hiru metodo nagusi erabili izan dira denboran zehar: behaketak, erroldak eta eraztunketa.

de un incremento de la recuperación en años posteriores en el extranjero de aves anilladas en Txingudi previamente.

3.2. Metodología

Las cambiantes coyunturas a las que tienen que hacer frente los ornitólogos así como los condicionantes que limitan la actividad investigadora hace que ciertos tipos de técnicas y métodos sean preferidas sobre otros en el momento de abordar el estudio de especies, poblaciones o áreas geográficas. Es habitual emplear de modo simultáneo varios métodos de estudio para poder completar de mejor forma los fines de la investigación emprendida dado lo complejo que resulta el estudio de la fauna salvaje. Además, la disponibilidad de nuevos medios a lo largo del tiempo hace que los métodos evolucionen por caminos poco previsible pero que, finalmente, redundan en la mejora de los datos que se obtienen. En una zona como Txingudi las técnicas de estudio han mejorado con el tiempo pero algunas de las que sirvieron para implantar la investigación sobre aves en la zona siguen en plena vigencia.

Las investigaciones sobre la avifauna que habita en Txingudi se ha basado a lo largo del tiempo en tres métodos: observaciones, censos y anillamientos.



Joseixe Riofrío

2. irudia. Lehorreko hegaztien zentsoetan ornitologoak basoan aldez aurretik finnkaturako bidea (marra gorri lodia) egiten du eta erakusgarrien eremuan (bi marra meheen artekoan ikusitako eta entzundako hegazti guztiei buruzko oharrak hartzen ditu.

Figura 2. En los censos de aves terrestres el ornitólogo recorre el camino preestablecido en el bosque (línea roja gruesa) y anota todas las aves vistas y oídas en la banda de muestreo (entre las dos líneas finas).

3.2.1. Behaketak

Behaketak, sistematizatuak izan ala ez, eremu natural desberdinetara hurbildu, behatutako espezieen berri jaso eta espezie horiek zenbatzen dituzten pertsonak egiten dituzte.

Metodo hau erraz burutzen da eta ondorioz, hauxe izan da natur ingurunearekiko interesa zuten pertsonak gehien erabili izan dutena aurretiaz informaziorik ezagutzen ez zeneko edozein ingururen garrantziaz jabetzeko. Honela, mende honetako 50. eta 60. mendean egindako behaketei esker, gaur egun aitortzen zaion balioa eman zaio Txingudiko ingurune naturalari.

3.2.2. Erroldak

Hainbat basa-animalia espezieen egoeraren berri jasotzeko behararen ondorioz, berauek hobeto babestu eta kudeatzeko neurri egokiak hartu ahal izateko, zenbaketak egiteko metodo homogeneoen beharra sortzen da, lortutako emaitzak denboran zehar, esparru berean zein esparru horretatik kanpo bildutako datuekin alderatu ahal izateko. Basa-animaliei buruzko datuak errolden bidez biltzen dira. Eta urteetan zehar datu sistematizatuak biltzea, natur baliabideak eta animalia-populazioak hobeto kudeatu ahal izateko zegozkion erabakiak hartzeko oinarri sendoena dela erakutsi digu denborak.

Errolda hauek osatzeko hegaztiak behatzen dira (edo beren kantua entzuten da) plangintza eta sistema bati jarraiki. Lehendik egindako beste errolda batean edo etorkizunean egitekoak diren beste batzuetan jasotako datuekin bateratu ahal izateko gutxieneko ingurugiro-baldintza batzuk bete behar dira. Erroldan jaso beharreko ingurunearen izaeraren arabera eta aztergaia osatzen duten espezieen arabera, metodo bat ala beste erabiliko da.

Historian zehar hegazti-populazioei buruzko erroldak egin direnean, gizarte espezie, eremu edo natur-sistema jakin batzuk babestu beharraz ohartarazteko egin izan dira. Goi mailako ornodunen artean hegaztiak osatzen dute begiz antzematen errazena den espeziea, eta horrenbestez, hainbat habitaten bilakaeraren adierazgarritzat hartu izan dira.

3.2.3. Hegazti lurarren erroldak

Kasu gehienetan, biotopo itxietan bizi diren hegaztiak (basoetan esate baterako) soinu bidez sailkatzen dituzte erroldagileek (2 irudia). Hori dela eta, haizea dabilen egunetan ezin da erroldarik egin, izan ere, haizeak hegaztien kantuek eta apeuak ezkututzen dituzten soinuak sortzen baititu eta bildutako datuak okerrak izan litezke. Biotopo hauetan bizi diren hegaztiak egunsentian kantatzen dute gehien, eta beraz, erroldak eguna urratzean osatu behar dira.

Mota honetako erroldak erabili dira, hain zuzen, Txingudiko hegazti lurar negutarrei buruzko azterlanak egiteko.

3.2.1. Observaciones

Las observaciones, sistematizadas o no, se realizan por personas que visitan las diversas áreas naturales y anotan tanto las especies que visualizan así como el número de ejemplares registrados.

Este método, por su facilidad de puesta en práctica, es el que tradicionalmente ha servido para que las personas interesadas en el medio natural se vayan formando una idea de la importancia de cualquier zona donde previamente se carecía de información. De esta manera, a partir de observaciones realizadas en los años 50 y 60 del presente siglo, se ha puesto en valor el área natural de Txingudi.

3.2.2. Censos

La necesidad de conocer la situación de las diversas especies animales salvajes, al objeto de establecer sobre ellas las medidas adecuadas para su mejor conservación y gestión, hace necesaria la utilización de métodos de cuantificación homogéneos para que los resultados obtenidos puedan ser válidos en su comparación a lo largo del tiempo tanto respecto a los que se registran en la misma zona como a los recogidos en otros territorios. La obtención de datos en el caso de los animales salvajes se realiza mediante técnicas de censo. El acopio de datos sistematizados a lo largo de los años se ha consolidado como la base más sólida sobre la que valorar posteriores decisiones para una mejor gestión de los recursos naturales y sus poblaciones animales.

Se basan en observaciones de aves (o audiciones de cantos) realizadas de manera planificada y sistematizada. Deben llevarse a cabo en condiciones ambientales mínimas que permitan dar por válidos los resultados que se obtengan con otros censos ya realizados o a realizar en el futuro. Dependiendo de la naturaleza del territorio a censar así como de las especies objeto de estudio el método a utilizar varía.

Históricamente, los censos de poblaciones de aves han ido asociados a una toma de conciencia por parte de la sociedad sobre la necesidad de preservar determinadas especies, territorios o sistemas naturales. Las aves son, dentro de los vertebrados superiores, la clase visualmente más conspicua por lo que se han utilizado como descriptores para establecer la evolución de diversos hábitats.

3.2.3. Los censos de aves terrestres

En la mayor parte de los casos las aves que ocupan biotopos cerrados (los bosques son un caso típico) son registradas por los sensores por sus manifestaciones acústicas (figura 2). Por esta razón no son válidos los días de viento (este meteoro provoca sonidos que ocultan las cantos y reclamos de las aves) para no sesgar los datos que se obtengan. Como las aves que ocupan estos biotopos exhiben su mayor nivel de canto al amanecer, los censos tienen que realizarse al despuntar el día.

Esta última modalidad de censo ha sido la utilizada para realizar el estudio de aves terrestres invernantes en Txingudi.

3.2.4. Hegazti urtar negutarren erroldak

Hegazti urtarrei buruzko errolden helburu nagusia hezegune jakin batean bizi diren ahalik eta hegazti gehien zenbatzea da. Horretarako espazioa azertu behar da alde zurretik, bertan aurkitzen ditugun espezieen ezaugarri ekologikoekin batera. Ingurunea ondo ezagutuz gero hobe izango da erroldaren kalitatea eta balioa.

Txingudi bezalako padura atlantiko batean negua igarotzen duen hegazti-populazioaren errolda osatu zurretik aintzat hartu beharko dira ondoko alderdiak:

A) Ahalik eta erroldarik osoena lortzeko, aztergai dugun inguruneke espezieen dinamika ezagutu behar dago, eta hala, espezieak ahalik eta esparrurik txikie-

3.2.4. Los censos de aves acuáticas invernantes

El objetivo principal de los censos de aves acuáticas es la cuantificación del mayor número posible de aves que ocupan una zona húmeda determinada. Para ello se requiere un estudio previo tanto del espacio como de las características ecológicas de las especies que se encuentran en él. Un amplio conocimiento de la zona facilita y mejora en gran medida la calidad y el valor del censo.

En el momento de proceder a censar la población de aves invernantes en una marisma atlántica como es Txingudi hay que considerar los siguientes aspectos:

A) Para establecer un censo lo más completo posible es necesario conocer la dinámica de las especies en la zona. Interesa que las diferentes especies queden concentradas



Joseixo Fiolirio

19. argazkia. Hegazti bati eraztuna ipintzen.

Foto 19. Anillado de un ave.

nean kokatuta egotea komeni da, espezie bera bitan zenbatu gabe, zenbaketa azkarra egin ahal izateko.

B) Itsasgora zein ordutan den jakin beharra dago, erolda eguneko zein ordutan egingo den erabaki ahal izateko. Mareak garrantzi handia du paduran, gora eta behera egitean lurzati handiak estali edo estalgabetzen baititu, eta horren ondorioz, baldintzatu egiten du eremu honetan bizi diren hegaztien kokagunea.

C) Baldintza meteorologiko egokiak behar dira. Egun aproposenak haizerik ez dabilenean eta oskarbi dagoenean izaten dira. Baldintza hauek bete ezean, litekeena da eroldan jaso beharreko populazioaren zati bat gorde-ta egotea, eta erroldagileek horien berri ez jasotzea, ondorioz, lortutako emaitzak okerrak izanik. Beraz, baldintza egokiak izan arte itxoitea komeni da ganorazko erolda bat osatu ahal izateko. Haizeak urruti dauden hegaztiak bereizteko erabilitako ikusgailuen edota teleskopioen eraginkortasuna nabarmen urritzen du.

D) Aukeratutako eguna erolda egiteko aproposa dela erabaki eta itsasgora eta itsasbehera noiz den jakinda-koan, erroldarekin hasteko ordua finkatu behar da eta alde zuzenetik aukeratutako eremuak ezagutzeko ibilaldi-txoa egin beharra dago. Aukeratutako eremu guztietarako ikustaldiak aski izan behar du eroldan jaso beharreko espazioaren gaineko ikuspegi osoa lortzeko.

3.2.5. Eratzunketak

Goian azaldutako erroldak osatzeko metodoen bidez biotopo edo natur gune jakin baten kalitatea zenbakien bidez egiaztatu ondoren, eratzunketaz baliatu gaitzake orain arte azaldutako tekniken bidez lortzen ezinezkoa den informazioa eskuratu ahal izateko.

Eratzunketa, ekologian «harrapaketa eta berrarrapaketa» izeneko azterketak egiteko metodoan oinarritzen da. Eratzunketaren azken xedea ez da hegaztiari eratzun bat ipintzea besterik gabe, berriro harrapatzean zalantzarik gabe bereizi ahal izatea baizik, baldintza naturaletan bizi den hegazti horren bilakaeraren berri ezagutu ahal izateko. Horretarako, hegaztiari buruzko hainbat parametro biotiko jaso beharra dago, bai eratzunketa egiten denean, bai hurrengoetan berriro harrapatzen denean ere. Hegaztiaren lan egiteko modu honek ahalegin handia eskatzen du, landa-lanari zein bildutako informazioarekin ondoren egin beharreko azterketei dagokienez, baina haxe dugu daturik gehien biltzeko jardunbide egokiena.

Hasiera batean hegaztien eratzunketa hainbat populazioen jatorria eta helburua zein ziren jakiteko erabiltzen zen. Zentzuzkoa da modu horretara sortu izana, izan ere, hegaztiak osatzen baitute espezie migratzaile gehien duen ornodun klasea, eta ordura arte, orain dela mende batera arte, ez zen halako ezaugarrien gaineko batere ezagutzarik.

Hegaztien bizimodua oso konplexua da, espezie gehienek kilometro ugari egiten baitituzte urtero batetik bestera, eta hala, egundoko ahalegin handia egin beharra dago beraien buruzko zalantzak argitu ahal izateko. xx. mendeko hogeigarren hamarkadaz geroztik, doitasun handi samarrez ezagutzen dira Europa eta Ipar Amerikako espezie ugariaren migrazio-ibilbideak. Horixe izan zen, hain zuzen ere, eratzunketa zientifikoak eman zuen lehen ondorioa.

en el menor espacio posible para facilitar un conteo rápido que evite duplicidades.

B) Se debe conocer la hora de la pleamar para poder establecer el período del día en el que se puede realizar el censo. La marea, como elemento dinamizador de la marisma, colmata o descubre amplias zonas de terreno en sus flujos y reflujos influyendo en la posición de las aves que ocupan este espacio.

C) Las condiciones meteorológicas han de ser favorables. Los más adecuados son los días despejados y sin viento. En el caso de que estas dos condiciones no se cumplan es probable que parte de la población a censar permanezca oculta a los censadores, de modo que, los resultados obtenidos no sean reales. En estos casos es recomendable posponer el censo hasta el momento en que las condiciones sean aptas. El viento fuerte hace perder gran parte de la eficacia a los telescopios y otras ayudas ópticas utilizadas para identificar las aves situadas a distancias lejanas.

D) Una vez que se estime la aptitud de un determinado día para realizar el censo y se haya fijado la hora de comienzo teniendo en cuenta el nivel de la marea, se debe de realizar un recorrido por las zonas elegidas previamente. El conjunto de las visitas a las zonas elegidas debe de proporcionar la visualización completa del espacio objeto de censo.

3.2.5. Anillamientos

Cuando por los métodos de censo descritos anteriormente se constata de manera numérica la calidad de un determinado biotopo o área natural es entonces cuando se puede utilizar la técnica del anillamiento para obtener un nivel de información de imposible consecución por las técnicas ya mencionadas.

El anillamiento es un método de estudio de los denominados en ecología de «captura y recaptura». El objetivo final del anillamiento no es instalar una anilla a un ave sino el de identificarla de manera inequívoca para que en caso de recaptura pueda conocerse la evolución del ave individualizada en condiciones naturales. Para conseguirlo es necesario registrar diversos parámetros bióticos del ave tanto en el momento del anillamiento como en el de las sucesivas recapturas. Este modo de trabajar con las aves requiere un gran esfuerzo, tanto en la labor de campo como en los análisis posteriores de la información compilada, pero es el que más datos reporta.

Inicialmente, el anillamiento de aves se aplicó para el conocimiento de procedencias y destinos de diversas poblaciones. Es lógico que surgiera de esta manera puesto que las aves son la clase de vertebrados con mayor número de especies migratorias y hasta entonces, hace ahora un siglo, no se tenía conocimiento de estos extremos.

La enorme complejidad que posee la vida de las aves al protagonizar la mayoría de las especies grandes movimientos espaciales cada año hace que el esfuerzo necesario para desentrañar estas incógnitas sea improbable. Desde los años veinte del siglo xx se conocen de una manera bastante ajustada las rutas migratorias de un número apreciable de especies de Europa y Norteamérica. Este fue el primer resultado que aportó el anillamiento científico.

Denborak aurrera egin ahala, eraztunetak beste alor batzuetara hedatu du bere erabilgarritasuna. Gaur egun erabiltzen diren plastikozko eraztun eta markei zor zaie hori gehienbat, izan ere, hegaztiak berriro harrapatu beharrik izan gabe, urrutitik bereizi ahal izatea ahalbidetzen baitute eraztun horiek, eta horri esker handitu egiten da orain arte egindako ahaleginaren etekina. Teknika hau bideragarria izango bada, nolabaiteko hedadura izan behar du eta espazio zabaletan bizi diren espezieekin erabili behar da. Batetik, hegaztiei jartzen zaizkien markak urrutitik irakurri ahal izateko bezain handiak izan behar dutelako eta, bestetik, hegaztiak bizi direneko ingurunea oso nahasia baldin bada, behar bezala bereiztea oztopatzen delako. Baldintza hauek betetzen dituzten hegaztien artean anatidoak, lertxunak, zikoinak eta harrapariak ditugu, besteak beste.

Con el paso del tiempo el anillamiento ha extendido su campo de aplicación. Esto se debe principalmente a la utilización moderna de anillas y marcas de plástico que permiten una identificación de los animales a distancia, sin tener que ser atrapados nuevamente, hecho que mejora el rendimiento del esfuerzo dedicado. Para que esta técnica sea viable se ha de trabajar con especies que cumplan la doble condición de tener cierta envergadura y que habiten en espacios abiertos. Por una parte para que las marcas posean un tamaño suficiente que permita su lectura a cierta distancia y, por otra, para que la visualización de las aves no se vea impedida por lo abigarrado del medio. Cumplen esta condición las grandes anátidas, garzas, cigüeñas, rapaces, etc.



Joseixo Filoifro

20. argazkia. Neurri desberdineko eraztunak.

Foto 20. Anillas de diversos tamaños.

Gure kontinentean ez dago espezie askorik eta Ipar Amerikak, aldiz, Europak baino askoz hedadura handiagoa duenez, askoz hegazti-fauna aberatsagoa du halaber. Nolanahi ere, gure planetako erdialdeko bazterretan hego hemisferioan baino askoz ere hegazti-komunitate anitzagoak aurkitzen dira, eta ondorioz, alde nabarmenak daude biologian espezie batzuei eta besteei buruzko ezagutzari dagokionez. Dozena erdi espezie (Europa eta Ipar Amerikakoak, jakina) duela mendetik gora hasi ziren aztertzen eta horretan jardun dute etenik gabe; beste askoren kasuan, ordea, beren existentziatik kanpo, ezer gutxi dakigu beraien buruz. Bai aspaldi aztertutakoekin, bai aztertzen berriki hasitakoekin eraztunketa erabiltzen da informazioa biltzeko.

Nuestro continente es un espacio relativamente pobre en especies y Norteamérica, territorialmente mucho más extenso, posee también una avifauna más rica. No obstante, son las zonas centrales de nuestro planeta las que acogen a unas comunidades de aves mucho más variadas que las que se asientan en el hemisferio norte. Todo esto hace que haya enormes diferencias en el conocimiento de la biología de unas especies a otras. Hay media docena de especies (europeas y norteamericanas, indudablemente) que llevan estudiándose de manera ininterrumpida desde hace más de un siglo; de otras muchas, en cambio, apenas se conoce poco más que su existencia. Tanto en la categoría de las muy estudiadas como en las poco estudiadas se sigue utilizando el anillamiento para obtener información.



Joseba Riofrío

21. argazkia. Hegaztia sare bertikal batean harrapatuta, eraztuna ipintzeko.

Foto 21. Ave atrapada en una red vertical para ser anillada.

Eratzunketak erabilera ugari ditu, eta hori dela eta mundu osoan zabaldua dago eta indarrean jarraitzen du, nahiz eta gaur egun lumen artean ipintzen diren emisore elektronikoen txikiak osatzen den. Maila teknologiko handiko teknika hauen bidez biltzen den informazioaren zenbatekoa eta kalitatea itzela da, baina bi alde txar nagusi ditu eta biek ere erruz mugatzen dute beren erabilpena. Batetik oso garestia da eta emisoreek, gorpuzkera handikoak ez diren hegaztiei jartzen zaizkien emisoreek bereziki, oso denbora gutxi irauten dute (ordu gutxi batzuk besterik ez). Gorpuzkera handiagoko hegaztiak pisu handiagoko emisoreen zama eraman dezakete eta, ondorioz, iraupen luzeagoa dute, eta urutiagotik hauteman daitezke, beren jarraipena egiteko erabiltzen diren satelite artifizialen bidez. Teknika sofistikatu hauek oso azterlan berezietan erabiltzen dira, ohiko eratzunketaren bidez lortu beharreko informazioa eskuratzerik ez dagoenean.

Hegaletan plastikozko eratzunak edo xingolak jartzea zaila izaten da azterlan etologikoak egiten direnean (jokamoldearen biologiar buruzkoak), baina Txingudin aztertutako alderdi etologikoei buruzko informazioa biltzeko ez da halakorik erabili behar izan. Gainera, padurako paseriformeek lezkadiak dituzte habitat gisa, eta hain ingurune itxia osatzen dutenez, ezinezkoa da bertan bizi diren hegaztiak behatzea.

Hau bezalako inguruneetan eta mota honetako espezieekin hegaztien hanketan metalezko eratzunak jarriaz burututako ohiko eratzunketa erabiltzen da. Aurrerago azaltzen ditugun emaitza guzti-guztiak metalezko eratzunak ipiniar lortu dira.

3.2.6. Hegaztiak harrapatzeko metodoak

Hegaztiak eratzundu ahal izateko, harrapaketa-metodo ugari erabiltzen da. Gehienak aspaldi-aspaldidanik datozkigu, hegaztiak ehizatzeke erabiltzen ziren garaietatik. Eratzunketa hegaztiak aztertzeke teknika gisa erabiltzen hasiz geroztik, inolako lesiorik eragiten ez duten metodoak aukeratzen dira hegaztiak harrapatzeke, bakoitzari buruzko hainbat parametro neurtu eta eratzunak jarri ondoren berriro ere askatzean, harrapatu aurretik zeudeneke egoera berean askatzeke.

Hegaztiak harrapatzeke erabili daitezkeen tranpa ugari artean, Txingudin bi sistema erabili dira nagusiki.

Kronologikoki erabili zen lehenbiziko metodoa sare eraisgarria edo lurreko sare izan genuen. Gailu hau estu jositako sare-begi finak dituen laukizuzen itxurako sare batez osatzen da. Egur eta metalezko bi ziri bidez lurrera finkatzen diren egur edo metalezko bina arnes ditu albo laburretan. Ziri hauen gainean biratu egiten dute bi arnesek, eta hauekin batera sareak, tranpa kokatuta dagoen lekutik zenbait metrora ipinitako babeslekutik ari den langileak sare batez bidez eragiten dituen. Sareak 180° biratu eta itxi egiten da bat-batean liburu baten antzera.

Era honetako sareak dira egokienak gure inguruko fringilidoak harrapatzeke, bereziki, ezteiaurreko migrazio-garaian. Helburu zientifikoetarako harrapaketa hauen jatorria basa-hegaztiak kaiolan gordetzeke eta beste helburu makabroetarako ehizatzen ziren garaietatik dator.

La variedad de aplicaciones que posee el anillamiento hace que sea una técnica universal y plenamente vigente que modernamente se ha visto complementada con la aparición de emisores electrónicos de pequeño tamaño que son colocados entre el plumaje. El volumen y la calidad de información que se obtiene con estas técnicas de alto nivel tecnológico es enorme pero posee dos inconvenientes que limitan su aplicación en gran medida. Tiene un alto coste económico y la vida útil de los emisores, especialmente en aves de pequeño porte, es muy corto (únicamente unas horas). En aves de gran tamaño, que pueden soportar emisores de mayor peso y, consiguientemente, de vida más larga y con emisiones captadas a mayor distancia, se utilizan satélites artificiales para su seguimiento. Estas técnicas tan sofisticadas se aplican exclusivamente en el marco de estudios muy específicos en el que el anillamiento tradicional no puede aportar el nivel de información que se requiere.

El marcaje con anillas o bandas alares de plástico suele ser de aplicación cuando se realizan cierto tipo de estudios etológicos (la biología del comportamiento) pero los aspectos etológicos que se han estudiado en Txingudi no han precisado el uso de estas marcas. Además, el hábitat de los paseriformes palustres son las masas de carrizo, un medio en el que toda visualización de las aves que lo habitan se torna imposible por ser un ambiente extraordinariamente cerrado.

En medios como el citado y con este grupo de especies es de plena vigencia el anillamiento clásico, el realizado con anillas de metal colocadas en las patas de las aves. Los resultados que más adelante se exponen han sido obtenidos con la única utilización de anillas de metal.

3.2.6. Métodos de captura

Para anillar a las aves se utilizan muy diversos métodos de captura. La gran mayoría son procedimientos antiguos utilizados a lo largo de los siglos por los hombres para atrapar aves con fines cinegéticos. Al aparecer el anillamiento como técnica de estudio elige entre los sistemas tradicionales aquellos métodos de captura que no supongan lesión para las aves ya que éstas se atrapan para ser liberadas en perfectas condiciones momentos después, tras tomar una serie de parámetros y colocarles una anilla.

Entre la enorme variedad de trampas existente para la captura de las aves, en Txingudi básicamente se han utilizado dos sistemas.

Cronológicamente, el primer método utilizado fue la llamada red abatible o red de suelo. Este artefacto consiste en una red rectangular de malla fina ajustada, por los lados cortos de la red, a dos arneses de madera o metal y que son fijados al suelo por unas pequeñas cuñas también de madera o metal. Sobre estas cuñas pivotan los dos arneses, y con ellos la red, cuando son accionados mediante una cuerda por el operario desde un refugio construido al efecto a unos metros de distancia. La red recorre 180° y se cierra súbitamente sobre el suelo como un libro.

Este tipo de red es el adecuado en nuestra zona para la captura de fringílidos, principalmente durante el trasiego migratorio prenupcial. Su uso como método de captura con motivación científica proviene de su utilización para la caza de aves silvestres destinadas a jaula y otros fines más ma-

Berriki arte baimenduta egon da sareon erabilpena, eta udaberriko hilabeteetan honelako sare eraigarri ugari ipintzen zen. Era berean, belardiko hankaluzak (hegabeak, txirriak, kurlintak eta abar) harrapatzeko ere erabili izan dira padurako hainbat bazterretan, baina orain dela zenbait hamarkadaz geroztik baztertu egin dira halako sareak.

Txingudin hegaztiak harrapatzeko erabiltzen den bigarren metodoa sare japoniarra edo sare bertikala dugu. Sare hau oso erabilgarria da eta hori dela eta, maiz erabiltzen da hegaztiak eraztuntzeko, ingurune ugarietara egokitzen baita, eta ondorioz, gure planetan ehizarako gehien erabilitako teknika dugu hauxe.

Erabilera honen oinarria hegaztiak sareak ikusteko duten zailtasunean datza. Sarea hegaztiei ia ikusteziak zaizkien hari mehe batzuek osatzen da (nahiz eta hegaztiak gizakiek baino ikusmen askoz handiagoa izan). Sareok erabiltzeko teknika oso soila da: lurrian sartutako bi makilen artean kokatzen dira, eta ez da sareak eragiteko inolako mekanismorik behar. Hautatutako lekuan kokatu ondoren, aldi berean bertaratu besterik ez da egin behar, sarean harrapatutako hegaztiak hartzeko. Mota guztietako biotopoetan erabil daitezke sare hauek, baina hala ere, ingurune itxietan (basoetan, zuhaiska-inguruetan, lezkadietan besteak beste) dira gomendagarrien, hobeto nahasten baitira hondoarekin. Zuhaiska batetik bestera edo lezkadiz lezkadi banan-bana migratzen duten hegazti intsektujaleak harrapatzeko oso egokiak dira sare hauek.

Sare japoniarra izena badute ere, ez dira Japonian sortuak, baina bai japoniarrek hedatuak munduan barrena. Hegaztiak harrapatzeko tranpa hau Txinan sortu zuten orain dela mende asko eta asko, sareok osatzeko lehengaita —zeta— eskuera baitzuten. Zuntz natural mehe hau oso sendoa da eta horri esker, hegaztiei ia ikusteziak zitzaizkien sareak egitea ahalbidetzen zuen. Gaur egun zuntz sintetikoek egiten dira sare hauek.

Txingudira hirurogeigarren hamarkadaren erdi aldean iritsi ziren sare japoniarrak, eraztun-jartzailerik berrizaleek Ingalaterratik ekarrita. Sare eraigarriak ez bezala, sareok gure artean alor zientifikoari lotuta egon dira beti.

cabros. Hasta épocas recientes se toleraba su funcionamiento y, en la práctica, se instalaban numerosas redes abatibles durante los meses primaverales. También llegaron a funcionar redes de este tipo para la captura de limícolas de pradera (avefrías, chorlitos, zarapitos, etc.) en diversas partes de la marisma pero su empleo fue abandonado hace varias décadas.

El segundo método de captura de aves empleado en Txingudi es la llamada red japonesa o red vertical. La enorme versatilidad que posee esta red hace que su aplicación para el anillamiento de aves sea muy amplia al ser utilizable en una gran variedad de medios siendo, de hecho, la técnica de captura más difundida del planeta con fines científicos.

El principio de uso se basa en la dificultad de visualización de la malla por las aves. La red está formada por unos hilos extraordinariamente finos, pero muy resistentes, que son prácticamente invisibles incluso para las aves (seres con una capacidad visual notablemente superior a la humana). La técnica de utilización es también muy simple: se instala entre dos palos verticales que son hincados en el suelo sin necesitar ningún mecanismo de accionamiento. Una vez colocada en el lugar elegido únicamente hay que visitarla periódicamente para recoger las aves que van quedando atrapadas en la malla. Su uso puede realizarse en cualquier tipo de biotopo si bien está especialmente recomendado para los medios cerrados (bosques, zonas arbustivas, carrizales, etc.) para que se camufle mejor con el fondo. Es especialmente apta para capturar aves insectívoras que realizan sus migraciones de modo individual saltando de arbusto en arbusto o de carrizo en carrizo.

La red japonesa, a pesar de su nombre castellano, no es una idea surgida en el país nipón. Los japoneses fueron únicamente los que la difundieron mundialmente. Esta trampa para aves fue inventada en China hace muchos siglos puesto que contaban con la materia prima necesaria: la seda. Al ser esta fina fibra natural altamente resistente, pudieron elaborar redes prácticamente invisibles para las aves. Modernamente están confeccionadas con fibras sintéticas.

Fue a mediados de los años sesenta cuando las redes japonesas llegaron a Txingudi, importadas desde Inglaterra por anilladores innovadores. A diferencia de la red abatible, el uso de esta red en nuestra tierra ha estado siempre circunscrito al ámbito científico.

- 4. Txingudiko hegazti-populazioak**
- 4. Poblaciones de aves de Txingudi**

Txingudiko hegazti-fauna hobeto ezagutzearren urte luzeetan zehar egindako eginahal handiaren helburu nagusia Bidasoako estuarioan betidanik bizi izandako hainbat espezieri buruzko zenbakizko informazioa lortzea izan da, izan ere, hegaztiok inguru honetan ibili izan diren ornitologo gehienei ezagunak bazitzaizkien ere, berriki arte ez baitzaie arreta handirik eskaini. Eta Txingudiko hegazti-espezie gehienak ere egoera horretan daude, alegia, existitzen direla jakin bai, baina beraiei buruzko ezer gutxi ezagutzen da besterik ez.

Jarraian Txingudin azken urteotan egindako hainbat ikerketetan lortutako emaitzak aurkezten dizkizuegu. Lehenik eta behin eraztunketa sistematikoaren bidez zenbait hegazti-espezie migratzaileei buruz bildutako datuak aurkezten dira. Bestalde, eroldaren bidez beste bi ikerlan burutu ziren hegazti negutarrei buruz. Batean hegazti lurtarrak 1987-1988 neguko hilabeteetan Txingudiko biotopo desberdinetan nola banatzen ziren aztertu zen. Azkenik 1990 urteaz geroztik hegazti urtar negutarrei buruz hainbat urtetan egindako eroldak agertzen dira.

Etorkizunera begira, goian azaldutakoaren antzeko ikerketa bat burutzeko asmoa dago, zenbakizko azterlanik ezaren ondorioz oraindik erantzun gabeko hainbat zalantza argitzeko. Horixe izango da egunera arte eskuean ditugun deskribapen-lanak gainditzeko modua.

4.1. Populazio migratzaileak

Honelako azterketak egiteko, ikertu beharreko hegaztia harrapatu eta hainbat datu eta neurri hartzen zaizkie mota bakoitzeko hegaztiei. Informazioa jasotzeko prozesua amaitzeko, eraztundu egiten dira hegaztiak eta natur ingurunera itzultzen dira berehala.

Azken 8 urteotan hainbat azterlan egin dira Plaiaundi eta Jaizubiatik udazkeneko migrazioan igarotzen diren silbino eta turdidoei buruz batetik, eta Higerretik udaberriko migrazioan igarotzen diren fringilidoei buruz bestetik. Guztira 25.717 hegazti markatu dira Txingudin gaur egun arte.

4.1.1. Txinboak (*Sylvia* generoa)

Txinboak (*Sylvia* generokoak) mundu zaharrean oso hedadura handia duten hegazti paseriformeak ditugu. Europan 12 espezie bereizten dira, eta gure kontinentean lurraldez lurralde duen banaketari dagokionez, alde nabarmenak bereizten dira. Espezie honetako hegaztien

El esfuerzo realizado durante los últimos años para un mejor conocimiento de la avifauna de Txingudi se ha centrado en la obtención de información numérica de varias de especies comunes en el estuario del Bidasoa desde siempre y que, aunque conocidas por la práctica totalidad de los ornitólogos que han tenido contacto con la zona, hasta fechas recientes no habían recibido mayor atención que la mera constatación de su existencia en la zona. Permanecen en este bajo nivel de conocimiento la gran mayoría de especies orníticas de Txingudi.

A continuación se presentan los resultados de varios estudios llevados a cabo en Txingudi durante los últimos años. En primer lugar se describen los datos registrados en diversas especies de aves migratorias obtenidos mediante su anillamiento sistemático. Por otro lado, se realizaron dos tipos de estudios en aves invernantes mediante la técnica del censo. En uno de ellos se investigó la distribución de las aves terrestres durante los meses del invierno de 1987-1988 en los diferentes biotopos de Txingudi. Finalmente, se exponen los censos de aves acuáticas invernantes obtenidos durante varios años a partir de 1990.

De cara al futuro se espera poder iniciar un proceso de estudio similar al comentado que permita desentrañar la mayor parte de las incógnitas todavía ocultas por la falta de estudios numéricos. Será la forma de superar los trabajos descriptivos disponibles hasta el momento.

4.1. Poblaciones de carácter migratorio

La realización de este tipo de estudios se basa en la captura de las aves objeto de investigación a las que se somete a una toma de diversos datos y medidas de cada ejemplar. Como conclusión del proceso de registro de información se procede al anillamiento de cada ave y se le reintegra en el medio natural de modo inmediato.

Durante los últimos 8 años se han sucedido diversos estudios realizados en silvinos y túrdidos en migración otoñal por Playaundi y Jaizubia así como fringílicos en migración primaveral por Higer. El total de aves marcadas durante este tiempo en Txingudi asciende a 25.717 ejemplares.

4.1.1. Currucas (género *Sylvia*)

Las currucas (género *Sylvia*) son un grupo de paseriformes de amplísima distribución en el Viejo Mundo y que en Europa presenta 12 especies. Este género exhibe una notable diferencia en cuanto a su distribución territorial en nuestro continente. La mitad de las especies tiene un área de ni-



Joseko Riofrio

3. irudia. Txingudin berreskuratutako sasi-txinboen (*Sylvia communis*) (●) jatorria.

Figura 3. Origen de las currucas zarceras (*Sylvia communis*) (●) recuperadas en Txingudi.

erdiak Europako erdi eta iparraldean egiten dituzte habiak, Europa epel eta hotzeko baso eta landazabaletan, eta beste erdiak, Mediterraneoaren arroan jartzen dute habia, batzuk espezie endemikoekin batera, Mediterraneo garriga eta sastrakadietan eta, oro har, ingurune xerikoetan. Txingudin txinboak agertzea migratzeko duten tradizio handiari zor zaio, nahiz eta, Mediterraneo itsasoaren inguruan finkatutako zenbait espezieengan zertxobait urretu den joera hori.

Txingudin migratzen duten espezieak hiru dira: sasi-txinboa (*Sylvia communis*), baso-txinboa (*S. borin*) eta txinbo kaskabeltza (*S. atricapilla*). Aurreneko bi espezieak udatiarrak dira Europan eta txinbo kaskabeltzak, berriak, populazio sedentarioak ditu Iberiar Penintsulan eta Mediterraneo itsaso inguruko lurraldeetan, baina horrekin batera, habia iparralderago jartzen duten espezieak migratzaileak ere bai.

Sasi-txinboa (*Sylvia communis*)

Sasi-txinboak 14 cm inguruko luzera du. Hegazti honen luma argiak ditu oro har, baina arrek ezarri zuria dute eta papar eta sabelalde argiagoa. Burua grisa dute eta kanela koloreko bizkaraldea. Hegalak marroiak dira, ilunagoak muturretan (lehen mailako arraun-lumak) eta gorriak gainerakoan. Buztaneko lumak marroiak dira, kanpoaldeko bi lumak izan ezik, zuriak baitira eta oso nabariak zuhaiska tartean dabiltzanean. Emeek arren antzeko eitea dute, baina buruaren kolorean bereizten dira, arren gris koloreko burualdea beharrean kanela kolorekoa baitute emeek, eta sabelaldea ere arrena baino ilunagoa dute.

dificación principalmente centro y norteamericana ligadas a ambientes boscosos y de campiña de la Europa templada y fría mientras que la otra mitad está ligada a la cuenca mediterránea, incluso con especies endémicas, ocupando el paisaje de garriga y matorral mediterráneo y, en general, ambientes xéricos. La presencia de las currucas por Txingudi responde a una de las características del grupo: su gran tradición migratoria, únicamente atenuada en algunas de las especies de implantación mediterránea.

Tres son las especies que migran por Txingudi con números significativos: la curruca zarcera (*Sylvia communis*), la curruca mosquitera (*S. borin*) y la curruca capirotada (*S. atricapilla*). Las dos primeras especies citadas son estivales en Europa mientras que la curruca capirotada tiene poblaciones sedentarias en la península Ibérica y zona circunmediterránea en tanto que las poblaciones de área de nidificación más septentrional son migrantes.

Curruca zarcera (*Sylvia communis*)

La curruca zarcera es una ave de unos 14 cm de longitud de tonos generales claros. En los machos la garganta es blanca y tanto el pecho como la zona ventral son pardo claro. La cabeza es gris y la zona dorsal es de color canela. Las alas son marrones, más oscuras en la zona distal (remiges primarias) y rojizas en la proximal. Las plumas de la cola son marrones excepto las dos externas, que son blancas, muy conspicuas cuando se interna entre los arbustos. Las hembras presentan un diseño similar al de los machos variando fundamentalmente el color de la cabeza, que troca el gris del macho por el canela y la zona ventral, que tiene tonos más oscuros que en aquél.



Joseba del Villar

22. argazkia. Sasi-txinboa (*Sylvia communis*).

Foto 22. Curruca zarcera (*Sylvia communis*).

Espezie hau Europan udan agertzen da soilik, bertan egiten baitute habia eta ez da agertzen Iberiar Penintsulako hegoaldean ezta Eskandinaviako iparraldean ere. Gogokoen duten habitata era guztietako zuhaiskak dau den inguruak dira, baina baso itxietan sartzea saihesten dute.

Espezie honek Saharatik beherako Afrikan igarotzen du negua, kontinentearen luze-zabalera osoan sakabanututa. Saharako basamortuaren hegoaldean bertan dau den lurren eta ekuatorearen arteko zerrenda du gogokoen negua igarotzeko, baina Kaprikornioko Tropiko ingurura ere jotzen dute negupasarako.

Txingudin sasi-txinbo bakarra berreskuratu da. Belgikatik zetorren (3. irudia). Txingudin eraztundutako hegaztiak dagokienez, ez da bakar bat ere berreskuratu.

Sasi-txinboak Txingudin egiten duen egonaldia murriztu egiten da migrazioak aurrera egin ahala. Abuztu erdialdean iraila erdialdera 8 egun inguruko egonaldia egiten dute hegazti horiek gure artean. Hurrengo hilabetetik aurrera, nabarmen murrizten dute tarte hori, batez beste bi eguneko egonaldia egiten dute. Migrazioaren azken tartean (urriaren erditik azaroaren lehen hamar egunera bitartekoa) ez dira Txingudin geratzen, eta ez da beste nonbait eraztundutako hegaztiarik harrapatu, gure lurretatik oso bizkor igarotzen baitira.

Ezteiondoko migrazioan Txingudira ale gutxien dakartzagun espeziea dugu hau. Saharan zeharreko migrazioa izanik, sasi-txinboak abuztu eta iraila bitartean dute lekualdaketa handiena, eta migrazioaren azken boladan, urriaren eta azaroko lehenbiziko hamar egunetan, behera egiten du nabarmen lekualdaketa horrek.

Udazkeneko migrazioan Txingudi zeharkatzen duten sasi-txinboen herena inguru helduak dira. Gainerakoak aurreko ugalketa-sasoian jaiotako hegazti gazteak dira, beren lehen negua Sahara azpiko lurretan igarotzeko prest datozkigunak. Migrazioaren azken hilabete eta erdian hegazti gazteak dira gure lurretatik igarotzen diren bakarrak.

Baso-txinboa (*Sylvia borin*)

14 cm-ko luzera du baso-txinboak, sasi-txinboaren antzera. Bere ezaugarri fisikoak ez dira oso deigarriak, gris koloreko lumak baititu, argiagoak behe aldean eta ilunxeagoak buruaren gainaldean, bizkarraldean eta hegaletan, zenbait txorien kasuan, gaztaina-kolore argikoa ere izanik. Sexu biek gorpuzkera bera dute.

Baso-txinboa Europan udan agertzen da soilik, eta kontinente osoko eremu freskoetan finkatzen dira. Saihestu egiten dute Mediterraneo aldea, eta Txingudi zeharkatzen duten gainerako txinboek baino gogokoago dute basoa. Habia egiteko garaian gogokoen duten habitata hostoerorkorreko basope ez oso trinkoak dira. Habia gure ingurunean jartzen dute eta, hala, landazabal atlantikoko lurretan ere aurkitzen ditugu.

Es una especie estrictamente estival en Europa donde nidifica en su práctica totalidad estando ausente en las latitudes meridionales de la península Ibérica y las septentrionales de Escandinavia. Su hábitat preferido son las zonas con arbustos de cualquier tipo evitando internarse en ambientes boscosos cerrados.

El área de invernada de esta especie queda situada en el África subsahariana, prácticamente a todo lo ancho del continente. Tiene preferencia por invernar en la franja situada inmediatamente al sur del desierto del Sahara hasta la zona ecuatorial, aunque tiene establecido otro cuartel de invernada en torno al Trópico de Capricornio.

Únicamente se posee una recuperación de curruca zarcera en Txingudi. Su procedencia es belga (figura 3). En cambio no hay ninguna recuperación de aves anilladas en Txingudi.

La curruca zarcera es un ave que experimenta una disminución en el período de permanencia en Txingudi a medida que la migración transcurre. De mediados de agosto hasta mediados de septiembre la permanencia de estas aves en la zona es de 8 días. Durante el mes siguiente, el período de permanencia sufre una considerable reducción ya que su estancia en Txingudi únicamente alcanza los dos días de media. En el período final de migración (de mediados de octubre hasta la primera decena de noviembre) su sedimentación es nula, esto es, no se registran recapturas, indicio de que el trasiego es rápido.

Esta especie de curruca es la que menos efectivos canaliza por Txingudi a lo largo de la migración posnupcial. Como migrante transahariano que es, la curruca zarcera mantiene su mayor flujo de aves durante los meses de agosto y septiembre, decayendo de modo notable su trasiego en el período final de la migración: octubre y primera decena de noviembre.

Aproximadamente un tercio de las curruca zarcera que transitan por Txingudi en la migración otoñal son adultas. El resto de aves son jóvenes nacidos durante la estación reproductora anterior y que se disponen a pasar su primer invierno en el subsahara. En el último mes y medio de migración solamente son aves jóvenes las que migran por la zona.

Curruca mosquitera (*Sylvia borin*)

Con 14 cm de longitud, la curruca mosquitera es de tamaño de similar al de la curruca zarcera. Sus características físicas son muy poco llamativas ya que el plumaje tiene un tono general gris, más pálido por las zonas inferiores y algo más oscuro por la parte superior de la cabeza, dorso y alas, que en algunos ejemplares llega a ser castaño claro. Ambos sexos poseen el mismo diseño corporal.

La curruca mosquitera es una especie únicamente estival en Europa donde se asienta en zonas frescas de todo el continente. Evita la zona mediterránea siendo más forestal que el resto de las curruca que migran por Txingudi. Su hábitat predilecto en la nidificación son los sotobosques no muy densos de formaciones forestales de hoja caduca. En nuestra zona, donde es nidificante, también ocupan los territorios de la campiña atlántica.



4. irudia. Txingudin berreskuratutako baso-txinboen (*Sylvia borin*) (●) jatorria.

Figura 4. Origen de las currucas mosquiteras (*Sylvia borin*) (●) recuperadas en Txingudi.



23. argazkia. Baso-txinboa (*Sylvia borin*).

Foto 23. Curruca mosquitera (*Sylvia borin*).

Sahara azpiko Afrikan, ia kontinentearen hego mugara bitarterainoko lurretan igarotzen dute negua. Negupasarako gogokoen dituzten habitatak sabana eta lur-eremu zabaleko inguruak dira.

Txingudin berreskuratutako baso-txinbo bakarra Belgikakoa zen (4. irudia) sasi-txinboen kasuan bezala. Eta, azken espezie honen antzera, gure lurretatik kanpo ez da Txingudin eraztundutako hegaztirik berreskuratatu.

Baso-txinboa da migrazio-garaian Txingudin egiten duen egonaldia handitzen duen txinbo espezie bakarra. Migrazioaren lehen herenean hiru egun ematen ditu ingurune honetan. Udak aurrera egin ahala murriztu egiten du bere egonaldia zertxobait (bi egun eta erdira) eta azkenean, migrazio-garaiaren azken aldian, udazken betean, handitu egiten du berriro bere egonaldia, lau egun eta erdira iritsi arte.

Txinguditik migratzen duten hegaztien artean ale-kopuru handienaz osatutako multzoen arteko bigarren espeziea dugu hau (txinbo kaskabeltzaren atzetik) eta migrazio-tasa handi samarra du. Abuztu eta irailean zehar hegazti hauen migrazio-lekualdaketa oso erregularra izaten da (hauxe da garai honetako txinborik erregularrena) eta urrian eta azaroan murriztu egiten da batetik bestera doazen hegaztien kopurua, Sahara zeharkatzen duten migratzaileengan ohikoa den bezala, sasi-txinboko ale kopuruarekin bat egin arte (azken aldi honetan, bi heren txikiagoa da abuztu eta irailean baino).

Inverna a lo largo de todo el África subsahariana hasta prácticamente el sur del continente negro. Sus hábitats preferentes en la invernada son la sabana arbustiva y zonas con paisaje abierto.

La única recuperación de una curruca mosquitera en Txingudi también procede de Bélgica (figura 4), como en el caso de la curruca zarcera. Y, al igual que en ésta última especie, tampoco se poseen recuperaciones de aves anilladas en Txingudi fuera de nuestro territorio.

La curruca mosquitera es la única especie de curruca que incrementa su periodo de permanencia por Txingudi a lo largo de la migración. Durante el primer tercio de la migración permanece tres días en la zona. A medida que el verano avanza experimenta una ligera disminución en su periodo de permanencia (situándose éste en torno a los dos días y medio) y ya, en la etapa final de la migración, en pleno otoño, vuelve a incrementar su periodo de permanencia hasta alcanzar los cuatro días y medio.

Siendo la segunda especie de curruca por volumen de migrantes en Txingudi (por detrás de la curruca capirotada), su tasa migratoria es relativamente alta. Durante los meses de agosto y septiembre mantiene un flujo de aves muy regular (se trata de la especie de curruca más regular en este periodo) y tanto en octubre como en noviembre baja el volumen de efectivos por su característica de migrante transahariano en una proporción sensiblemente igual al de la curruca zarcera (en este periodo final decae aproximadamente dos tercios del volumen que ha mantenido a lo largo de agosto y septiembre).

Ezteiondoko migrazioan Txingudi zeharkatzen duten baso-txinboen %5 bakarrik dira helduak. Hauen arteko %85 migrazioaren lehen hilean zeharkatzen dutē gure ingurunea, hau da, iraila erdialdea baino lehen. Gainerako hegazti helduak hil honen erdialdea eta urriaren erdialdea bitartean igarotzen dira hemendik, eta txinboen migrazio-erritmoak behera egitean, hegazti gazteek bakarrik migratzen dute.

Txinbo kaskabeltza (*Sylvia atricapilla*)

Txinbo kaskabeltza dugu Txinguditik igarotzen diren txinboen artean gorpuzkera deigarriena duen espeziea. Arrek buruaren goiko aldea beltza dute (hortik izena) eta bizkarraldea oliba-gris kolorekoa; behealdeko atalak gris argiak dituzte paparraldean eta ilunxeagoak sabelaldean. Emeak arraren lumajearen antzeko koloreko lumak ditu, burualdean izan ezik, marroi gorriskak baitira horkoak.

Txinguditik migratzen duten txinboen artean, European negua ematen duen populazio handi samarreko espezie bakarra dugu hau, nahiz eta Europako txinbo kaskabeltz gehienak Afrikara jotzen duten negu-garaian. Zenbait populaziok Magreben ematen dute negua, eta beste batzuek, berriz, askoz ibilbide luzeagoa egiten dute eta neguko hilabeteak Sahara azpiko sartaldeko zein sartaldeko lurretan ematen dituzte. Negupasarako ingurune honetan habia oso ipar muturreko lurretan egiten dituzten hegaztiak biltzen dira.

Únicamente el 5% de las currucas mosquiteras que se canalizan por Txingudi durante la migración posnupcial son adultas. El 85 % de ellas trasiega por la zona durante el primer mes de la migración, esto es, lo hacen antes de mediados del mes de septiembre. El resto de aves adultas pasa entre mediados de este mes y mediados de octubre y, cuando decae el ritmo migratorio de las currucas mosquiteras, migran solamente aves jóvenes.

Curruca capirotada (*Sylvia atricapilla*)

La curruca capirotada es la especie que posee un diseño corporal más llamativo de entre las currucas que migran por Txingudi. El macho tiene la parte superior de la cabeza (el capirote) de color negro en tanto que sus zonas dorsales son de un color gris oliva mientras que las inferiores son gris pálido en la zona pectoral y algo más oscuro en el abdomen. La hembra tiene similares las tonalidades de su plumaje excepto en el capirote, que es marrón rojizo.

Esta especie es la única curruca de las migrantes por Txingudi con números significativos que posee poblaciones invernantes en Europa aunque una gran parte de las poblaciones europeas de currucas capirotadas pasan en África el período invernal. Ciertas poblaciones lo hacen en el Magreb, continuación del área europea de invernada, otras, en cambio, recorren un territorio considerablemente mayor y se asientan durante los meses invernales tanto en el subsáhara oriental como en el occidental. Estas zonas de invernada son nutridas por poblaciones de área nidificadora muy septentrional.



Joseba del Villar

24. argazkia. Txinbo kaskabeltza (*Sylvia atricapilla*).

Foto 24. Curruca capirotada (*Sylvia atricapilla*).



A



B

5. irudia. Txinbo kaskabeltzen (*Sylvia atricapilla*) berreskuratzeak (●). A) Txingudin harrapatutako hegaztien jatorria. B) Txingudin eraztuna ipinitako hegaztiak berreskuratzea.

Figura 5. Recuperaciones de curruca capirotada (*Sylvia atricapilla*) (●). A) Origen de las aves capturadas en Txingudi. B) Recapturas de aves anilladas en Txingudi.

Aurreko bi txinbo espezieen kasuan bezala, Txingudin txinbo kaskabeltz bakarra berreskuratu da. Ale hau ere Belgikatik etorritakoa zen eta Txingudin berreskuratutako sasi-txinboaren talde berekoa zen. Baina, mota honetako gainerako hegaztien kasuan ez bezala, Txingudin eraztundutako bi txinbo kaskabeltz berreskuratu dira kanpogan, Frantzia erdialdean eta mendebaldean hain zuzen ere (5. irudia).

Espezie hau oso erregularra da ezteiondoko migrazio garaian, abuztu erdialdetik urri erdialdera, eta oso jalkipen erregularra du. Bi hilabete hauetan zehar egun eta erdiko egonaldia egiten du inguru honetan batez beste. Migrazioaren azken asteetan, urriaren erdialdetik azaroko lehen astera bitartean, ez da espezie honen jalkipenaren arrastorik antzeman.

Txinbo kaskabeltza dugu Txinguditik migrazio ugariena duen hegazti lurterra. Espezie honen migrazioaren bilakaera irregularra da. Abuztuaren erdialdetik iraila erdialdera arte inguru honetako txinbo ugariena dugu. Migrazio-garaian erdialdean %53raino handitzen da migrazioa, eta gure lurretatik igarotzen diren txinbo kaskabeltz guztien erdiak orduantxe migratzen du. Migrazioaren azken asteetan migrazioak behera egiten du nabarmen, izan ere, %52tik %8 eskasera jaisten baita. Txinbo kaskabeltzek Txingudin duten jokamoldea Sahara zeharkatzen dutenaren antzekoa da, baina, gorago argitu dugun bezala, Saharara iritsi aurretik negua igarotzen duen espeziea dugu batik bat.

Hegazti migratzaile helduen kopurua baso-txinboen parekoa da txinbo kaskabeltzei dagokien ere, hau da, %4,6koa. Hegazti heldu hauek guztiak migrazio-garaiko lehen hilean migratzen dute, eta abuztu erdialdetik aurrera oso kasu bakanetan harrapatu izan da adin honetako hegaztirik.

4.1.2. Lezkariak (*Acrocephalus* generoa)

Europan oso hegazti-multzo gutxi dago *Acrocephalus* generokoak bezain homogeenak direnak. Europar habia egiten duten zortzi espezieetatik zazpi udatiarrak dira gure artean. Mediterranioko itsasbazterrean finkatutako benarriz kaskabeltza (*Acrocephalus melanopogon*) da sedentarioa den bakarra. Genero honetako espezieek dituzten ezaugarri komunak beren izaera udatiarra, gorpuzkera eta bizi direneko biotopoa ditugu. Nolabait ere, elkarrengandik gehien bereizten dituen beren lumajea da, nahiz eta elkarren arteko aldeak oso nabarmenak izan ez, bi motako lumaje bereizten baitira nagusiki, eta batekoa edo bestekoa duten hegaztiak oso antzekoak baitira elkarren artean.

Esan bezala zortzi espezie bereizten dira lezkarien artean eta hauen arteko bostek, ohiko lezkaritzat sailka genitzakeenak, oso lumaje diskretua dute: arera goiko aldean eta crema-kolorekoa behealdeko ataletan. Elkarren artean oso antzekoak dira bostak ere, eta hala, lezkari karratxina (*A. arundinaceus*) izan ezik, gainerako lezkariak baino nabarmen handiagoa, zaila izaten da espezialistentzat ere elkar bereiztea, nahiz eta eskutan hartuta aztertu. Bestalde, gainerako hiru espezieak, benarrizak alegia, lumaje deigarriagoa dute, izan ere, bizkarraldea eta burua puntu beltzez estalita baitute, eta behe aldeko atalak gorri-hori kolorekoak.

Como en las otras dos especies de curruca comentadas, existe una única recuperación de esta especie en Txingudi. Procede de Bélgica, de la misma cuadrícula que la curruca zarcera (figura 5 A). En cambio, se poseen dos recuperaciones de curruca capirotadas anilladas en Txingudi. Ambas fueron controladas en el centro-oeste de Francia (figura 5 B).

Esta especie muestra una gran regularidad en su sedimentación por Txingudi durante la migración postnupcial, desde mediados de agosto hasta mediados de octubre. Durante estos dos meses su permanencia media en la zona queda situada en día y medio. En el período final de la migración, de mediados de octubre hasta la primera decena de noviembre no se ha registrado indicio de sedimentación.

La curruca capirotada es el ave terrestre más abundante en su migración por Txingudi. La evolución de la migración es irregular. De mediados de agosto a mediados de septiembre es la especie de curruca más abundante en la zona. Ya en la parte central del período migratorio el incremento de migrantes llega al 53 % respecto a la primera parte siendo este espacio de tiempo en el que migran más de la mitad del volumen total de curruca capirotadas. En el período final la caída es muy brusca ya que del 53 % citado se pasa a una tasa de únicamente el 8%. Su comportamiento por Txingudi semeja a una especie transahariana pero, como ya se ha comentado más arriba, es una especie de invernada básicamente presahariana.

La tasa de aves migrantes adultas es similar en esta especie de curruca a la de la curruca mosquitera. En el caso de la curruca capirotada el 4,6 % de las aves migrantes son adultas. La práctica totalidad de estas aves adultas migra en el primer mes de migración siendo excepcional capturar aves de esta edad a partir de mediados de agosto.

4.1.2. Carriceros (género *Acrocephalus*)

Pocos grupos de aves en Europa son tan homogéneos como el conjunto de especies del género *Acrocephalus*. Siete de las ocho especies nidificantes en Europa son estivales en nuestro continente. Únicamente el carricero real (*Acrocephalus melanopogon*), asentado en la ribera mediterránea, es sedentario. Las características comunes abarcan tanto su carácter estival como su diseño corporal y el biotopo que ocupan. En cierto modo, quizá en lo que más difieran sea en el plumaje, aunque las diferencias son limitadas puesto que exhiben dos patrones de librea con enormes similitudes entre las especies que forman cada tipo de plumaje.

Cinco de las especies, las que podríamos llamar carriceros típicos, tienen un plumaje muy discreto: pardo en sus zonas superiores y crema en las inferiores. Su similitud física es tan notable que, al margen del carricero tordal (*A. arundinaceus*), de tamaño considerablemente mayor que el resto de los carriceros, es complicado incluso para los especialistas diferenciarlos aun analizándolos en la mano. Por otra parte, las tres especies restantes, los carriceros, poseen un plumaje algo más llamativo al tener punteado de negro tanto el dorso como la cabeza, variable según la especie, y las zonas inferiores de color ocre.

Lezkarien bizitzak lotura estua du kanaberadi eta antzeko landareekin. Gehienbat lezka arruntez (*Phragmites australis*) osatutako lezkadietan aurkitzen ditugu, baina batzuetan batetik bestera ibiltzen dira, eta inguruko landareetan egiten dituzte habiak (kanabera, lezka hostoestu, *Baccharis halimifolia*, eta abarretan).

Txingudin habia egiten duen bakarra lezkari arrunta (*A. scirpaceus*) dugu, baina inguru honetatik lezkari arruntaz beraz gain, beste lau espeziek migratzen dute: zingiralezkariak (*A. palustris*), ur-benarrizak (*A. paludicola*), lezkari karratxinak (*A. arundinaceus*) eta benarriz arruntak (*A. schoenobaenus*). Aurreneko bi espezieei dagokienez, oso ale gutxi igarotzen dira Txinguditik. Lezkari karratxinak oso habi gutxi egiten ditu eta oso modu irregularrean gainera, eta Txinguditik espezie horretako hegazti gehixea go igarotzen bada ere, gutxi batzuk besterik ez dira izaten. Benarriz arrunta eta lezkari arruntak ditugu hegazti-multzoko handienak osatzen dituzten espezieak.

Lezkari arrunta (*Acrocephalus scirpaceus*)

Txingudiko padurako biotopoetan paseriforme talderik handiena osatzen duten espezieen artean lezkari arrunta nabarmentzen da, izan ere, gure inguru honetatik ale ugari igarotzen baita. Bereizgarri fisiko arrunt samarrak ditu, kolore arre argiko burua eta bizkarraldea baitu eta beheko atalak zuri zikinekokoak. Arrek eta emeek antzeko koloreak dituzte eta hegazti gaztetxoek ez dituzte bereizgarri horiek, bizkarraldea kanela kolorea baitute, eta gainerako atalak hegazti helduek baino kolore ilunagoak. Heldu eta gazteen arteko alde hauen ondorioz, zailak dira sailkatzen eta hegaztiokin denbora luzean lan egin ondoren lortzen da zailtasunik gabe sailkatu ahal izateko adinako trebetasun eta segurtasuna. Gazte zein helduek oso gutxitan gainditzen dute 13 metroko luzera.

Lezkak (*Phragmites australis*) hazten direneko lekuekiko lotura estuan bizi da lezkari arrunta, migrazio-garaitik kanpo padura-inguru horietan bizi baita, eta hankak zein behatzak landare bertikal honetara egokituta ditu guztiz. Migrazio-garaian beren biotopo kuttunetik kanpo aurki daitezke, gainerako espezie asko eta asko bezalaxe, baina Txingudin lezkarietan aurkitu ohi dugu, padura inguruko zuhaiska-multzoetan bereziki.

Uda garaian erdialdeko Europa osoan barrena aurkitzen dugu, Eskandinavia penintsulako hegoalderaino iristen delarik, baina Mediterraneo itsasoaren bazterreko herrietan ez da hain ugaria. Sahara zeharkatzen duen paseriforme honek Afrika osoan zehar igarotzen du negua, tropiko bietaraino iritsiz.

Lezkari arrunta da gure kontinentetik etorritakoen artean Txingudin alerik gehien berreskuratu deneko padurako espeziea (6A irudia). Txingudin berreskuratutako hegaztien %60 inguru Belgika eta Holandatik etorriak dira, eta bereziki bi herri horien arteko mugatik. Herri hauen atzetik, Ingalaterrako hegოსортaldetik etorritako hegaztiak aipatu behar ditugu. Izan ere, bertan egiten baitute habia Txingudin berreskuratutako lezkari arruntan %12k. Bi inguruen artean ere —Mantxako kanaleko Frantzia aldeko itsasbazterretik alegia— badatozkigu hegaztiak Txingudira. Hain zuzen ere, gure ingurune honetan berreskuratutako hegaztien %8 jatorri horretakoa da. Gainerako lez-

La vida de los carriceros está íntimamente ligada a los cañaverales y formaciones vegetales afines. Mayoritariamente ocupan los carrizales de carrizo común (*Phragmites australis*) aunque ocasionalmente pueden transitar e incluso establecer sus nidos en plantas del entorno (cañas, espadañas, *Baccharis halimifolia*, etc.).

En Txingudi solamente nidifica el carricero común (*A. scirpaceus*) pero migran por la zona, además del propio carricero común, otras cuatro especies más: carricero políglobo (*A. palustris*), carricerín cejudo (*A. paludicola*), carricero tordal (*A. arundinaceus*) y el carricerín común (*A. schoenobaenus*). Las dos primeras especies citadas son apenas perceptibles en Txingudi por aportar muy pocas aves durante la migración. El carricero tordal, nidificante muy escaso e irregular, migra con cifras algo superiores pero siempre bajas. Son el carricerín común y el carricero común las dos especies que suministran cantidades importantes de aves.

Carricero común (*Acrocephalus scirpaceus*)

Uno de los paseriformes más abundantes en los biotopos palustres de Txingudi es el carricero común que canaliza por nuestra zona un flujo muy importante de efectivos. Sus características físicas son poco llamativas ya que el plumaje posee una coloración pardo clara en la cabeza y el dorso en tanto que las zonas inferiores son blanco sucio. Ambos sexos son de coloración similar. Los individuos jóvenes no siguen este patrón de coloración teniendo un color canela en sus partes dorsales y, en general, tonos más oscuros que los ejemplares adultos. Esta variación tonal hace que sea un grupo de aves complicado de clasificar y únicamente tras un trabajo prolongado con ellos se adquiere la soltura y seguridad necesaria para poder catalogarlos sin problemas. Tanto jóvenes como adultos rara vez superan los 13 cm de longitud.

